



BRAULIO IRIARTE


Mexikoko garagardoaren sortzaile baztandarra

1860. urtean sortu zen Elizondoko Txokoto auzoko Martindenean Braulio Iriarte Goienetxe, nekazari familia batean. Hamazazpi urterekin, ikaskerarik, ofiziorik eta dirurik gabe Mexikorat gan zen, okin gisara lan egiteko. Hogeita bost urte beranduago laurogei okindegiren jabe zen. 1925eko urriaren 25ean, duela 75 urte, Cervecería Modeloren lehen lantegia sortu zuen. Bera izan zen administrazio kontseiluko lehendakaria 1922tik hil

zen arte, 1932. urtean.

Kontseilu horretan inguru honetako hainbat kide izan ziren. Braulio Iriarte Mexikoko Centro Vascoko lehendakaria ere izan zen eta baztandarrak harat gateko laguntza handia eman zuen. Gaur egun, Mexikoko garagardo enpresa handiena da Modelo eta Munduko zortzigarrena. Bertzeak bertze Corona garagar-

1877an gan zen Mexikorat okin gisara lan egitera. XX. mende hasieran 80 okindegiren jabe zen eta 1925ean Modelo garagardo enpresaren lehen lantegia ideki zuen.

doa—hemen Coronita—, munduan gehien edaten den bosgarren zerbeza marka komertzializatzen du.  4



3 Elkarrizketa: Jabier Biurrarena lurperatzailea

Domisaindu egunaren ospakizuna dela eta, Igantzi eta Berako kanposantuetan hildakoei lur ematen dien Jabier Biurrarenarekin izan gara. Jendeak bere lana estimatzen badu ere, erreparo dexente baduela erran digu: «*Jendeak sobera beldur die hilei, nik uste hilek ez dutela bueltarik. Hemen ez da inor mugitzen, inor ez da keiztzen*».

 3

6 Gaurkotasuneko Gaia: Turismoa goiti

Turismoak urte honetan izan duen bilakaera ikusteko Bertiz eta Plazaolako Partzuergoko gerentekin eta Sarako Turismo bulegoaren arduradunarekin izan gara. Orokorrean, jende gehiago ibili da, baina diru gutiago utzi dute.

28 Kiroliketa: Patxi Vila

Txirindulari beratarrak bi urterako kontratu profesionala sinatu du Banesto taldearekin. 25 urterekin, bere azken aukera zela onartu du. «*Orain profesionala izaten saiatuko naiz, horrek erran nahi duen guziarekin*».

29 Kirola: Gure Txokoa-Beti Gazte
Azaroaren 12an, Bortzirietako futbol derbi nagusia Beran.

ORDOKI

ALTZARIATK

Estilo ugariko mogleak

Larimbat goiz eta arratsaldez irekia



LOGELAK
EGONGELAK
TRESILLOAK,
KUTXAK
BESAULKIAK...

A

Amairu enpotratuen
erakusketa berria
Bittirian

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26 SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780 LESAKA

Euskaraz bizitzeko...

26.000 euskaldun zeure zerbitzura!



- 850 jarduera profesional
- 400 udalerrri
- 2.600 helbide elektroniko
- EH osoko posta kodeak

Harpidetza egiteko eta Gida etxean jasotzeko, deitu telefonoz edo bidali postaz honako ebakina. Bi urterik behin, 50 lib./1000 Pta.ren truke, jasoko duzu Gida etxean bidalketa gastuak barne.

ARTEZ Euskara Zerbitzua • 944 480 000 • Luzarra, 10 -2. • 48014 Deustu (BIZKAIA)

izen-deiturak: _____

helbidea: _____ herria _____ P.K. _____

ordainketarako kontua: _____

DATUAK

❖ Orain 57 urte Arantzan sortua, 1966an espostu zen Berarat, andrea ere arantzarra izanagatik.

❖ Igantzi eta Berako kanposantuko lanak berak eramaten ditu azken 7 urteotan, eta Arantzakoa ere eduki zuen bolada batean.

❖ Horrez gain baditu 30 urte Berako fabrika zaharrean lanean ari dela.

❖ Bere kanposantuko lana estimatzen badute ere, jendeak erreparo dexente baduela erran digu Jabierrek.

❖ Hil berriei lur-eman zien lehen alditan gaizki pasatu omen zuen, baina "denborarekin horretara ere jartzen zara, mentalizatuz gero" dio.

📍 **Jabier BIURRARENA** Berako lurperatzailea

"Neretzat problemarik latzena atakatik kanpora da, biziakin"

EGUNOTAN NORMALEAN BAINO LAN GEHIXE-AGO IZANEN DUZU SANTU GUZIEK EGUNA DELA ETA...

Bai, pintatzen, gurutzeak eta tapak garbitzen... lore aunitz bada hemen urte guzian, eta usteltzen direlarik kanpora ateri behar dira. Gero gazte bat hartu dut ateak pintatzeko...

GAINERAKOAN ZEIN IZATEN DA ZURE LANA?

Nere lana zuloak egin, hilei lur-eman, tapatu eta kanposantua gurbia kontzea. Hori dena pikotza eta palarekin egin behar da, eta gogorra izaten da. Denetik tokatzen da, ezagunak, lagunak, familiakoak... baina nahitanahiez egin behar da, ez du bueltarik. Lehenbizian gogor xamarra egiten da baina gero jartzen zara, bertze lanetan bezala. Orain 10-12 urte hildakoak oso-osorik harrapatzen dituzu eta kanpora ateri behar dira zuloak handitzeko, hori gogorra da.

JENDEAK BEGI ONEZ IKUSTEN DU ZURE LANA?

Kontent direla iduri du, estimatzen dute nere lana. Erreparo pixko bat ere izaten dute, batzuk beldurra diote.

EZ DUZU USTE JENDEAK SOBERA MAMU DUELA HILEN INGURUAN?

Bai, batzuk familia-



«Ongi funtzionatzeko hiru herri hartu behar lituzke lurperatzaile batek».

koak hiltzean ere ez dira etortzen. Jendeak sobera beldur die hilei, nik uste hilek ez dutela bueltarik. Hemen ez da inor agertzen, inor mugitzen, inor kejaritzen. Neretzat problemarik latzena da atakatik ateri eta kanpota, biziakin, ez hauekin. Hori aunitz aldiz erran dut. Mentalizatuz gero, hemen ez da deus ere. **HALA ERE JENDEAK EZ DU LAN HAU HARTU NAHI**

IZATEN, BATEZ ERE HERRI TTIKIETAN.

Etxalarren adibidez ez zuten inor harrapatu eta albinteari erran zioten. Neri erran zidaten baina ia ezin nuen, ez naiz desetara ailegutzen. Urrotzen uste dut familiakoak lur-ematera ailegatu direla.

Honek ongi funtzionatzeko hiru herri hartu behar ditu lurperatzaile batek. Fijoa egin, bere jomala eta gizarte segurantzarekin... hiru herri problemarik gabe eramaten ahal dira.

TOKIZ ERE NAHIKO ESKAS DABIL BERAKO

KANPOSANTUA.

Hau zanpetaraino bete dago, ez dago tokerik batere. Berria egin behar dela ari dira pentsatzen, erreka ondoan egin nahi dute. Orain sistema berria ere ateri dute, erretzea, Errenterian egiten ahal da, baina nahiko garesti omen da, 300.000 pezeta.

GAUR EGUN HAGITZ GARESTI DA HILTZEA.

Bai. Hiltzea bakarrik aski ez dela, dena probexteko esperoan dago jendea. Kajak, koronak, kristoren gastuak. Dirua jarri da nagusi, martxa txarra. ■

► «Jendeak sobera beldur die hilei, nik uste hilek ez dutela bueltarik. Hemen ez da inor agertzen, inor mugitzen, inor ez da kejaritzen.»



Braulio Iriarte bere guraso eta arrebeekin: Alta, Juan Pedro Iriarte Etxeberria elizondarra eta ama Catalina Goienetxe Landa arizkundarra. Arrebak, Francisca, Felipa eta Fermina. Hauen semeak ere Mexikorat gan ziren eta bi Braulioen sozio izan ziren Beti-Ona errotan: Agustín Jauregi Iriarte eta Jose Larregi Iriarte.

BRAULIO IRIARTE

Mexikoko garagardoaren sortzaile baztandarra

Aunitzek ezagutuko duzue Elizondoko Braulio Iriarte karrika. Baina, nor izan zen Braulio Iriarte Goienetxe? Txokoto auzoko Martindenean sortu zen 1860an. Hamazazpi urte zituela Mexikora gan zen, baztandar gehientsuenak bezala, okin gisara lan egitera. XX. mende hasieran 80 bat okindegiren jabe zen. 1925ean Cerveceria Modelo S.A. ren lehen lantegia sortu zuen. Hirutan hogeita hamabortz urte bete berritan, Mexikoko garagardo enpresarik handiena eta Munduko zortzigarrena da, bertzeak bertze Corona -hemen Coronita- garagardo famatua egiten duen enpresa. Erreportai hau osatzeko, Alberto Aldaik Mexikoko nafarrei buruz egin duen doktoretza tesian oinarritu gara.

TESTUA: AITOR AROTZENA

Urriaren 25ean hirutan hogeita hamabortz urte bete dira Mexikoko Cerveceria Modelo S.A. garagardo enpresaren lehen produkzio lantegia inauguratu zenetik. Braulio Iriarte Goienetxe elizondarra izan zen lantegi honen bultzatzailea, lehen bokala eta administrazio kontseiluko lehendakaria 1922tik hil zen arte, 1932. urtean.

Modelo garagardo enpresaren -Corona garagardoa-

rengatik ezagunagoa- sorrerak gizarte eta ekonomi arloan izan zuen garrantziaz ohartzeko, aipatu behar da Mexiko Errepublikako lehendakaria, Plutarco Elías Calles, eta gobernu osoa izan zela lantegiaren inaugurazio ekitaldian. Berna markesa, Espainiako ministroa Mexikon eta industria, negozio eta finantza gizonak ere izan ziren inaugurazio ekitaldian, El Sol egunkari espainiarrak bildu zuzenez.

Izan ere, Modelo sortu aitzinetik, 1920. hamarkadan garagardotegi tiki aunitz zuzen den Mexikon, batez ere ipa-

raldean. Herri eta eskualdeko merkatuak hornitzeko aski ziren lantegi hauek, baina Modelok herrialde osorako produkzioa egin nahi zuen.

Elkartea osatzeko, 1922ko martxoaren 8an, Braulio Iriartek Mexikon zeuden Espainiako negozio gizon haundien laguntza bilatu zuen, batez ere kantabriarrak eta asturiarrak. Honela osatu zen lehen Administrazio Kontseilua.

Nafarroako akziodunak bigarren Administrazio Kontseiluan

Modeloren sorreratik zortzi hilabetera, 1922ko azaroan krisi larrian sartu zen enpresa, kapitala guttitu zen eta administrazio kontseiluan eta akziodunetan aldaketak izan ziren. Fundatzaileak izan ziren negozio gizon gehienek elkarte utzi zuten. Hauen ordez, okindegiak zituzten Nafarroako enpresari tikiak hartu zituen sozio gisara Braulio Iriartek. Hauen artean zeuden Francisco Zilbeti Ilarregi (Aritzua, Anue, 1877) lehendakariordea, Martin Oianburu Artze (Lizaso, Ultzama, 1881), Andres Barberena Urrutia (Garralda, Aezkoa, 1880), Marcelino Zugarramurdi Etxenike (Arizkun, 1882), Fermin Buadés Neol (Elizondo, 1882), Pedro Majirena Saldias (Bera, 1877) eta Victoriano Loperena Ilarregi (Arizkun, 1883). Nafar hauek bigarren administrazio kontseilua osatu zuten. Eraberean, komisarioak izan ziren Segundo Minondo Rota (Nagore, Artzibar, 1888), Jose Olabe eta Pedro Etxenike Inda (Gartzain, 1893). Honela hasi zen nafarrek elkarte kontrolatu zuten garaia.

Akziodun berri hauetako batzuk, hala nola, Barberena, Zugarramurdi, Buadés, Oianburu, Etxenike eta Loperena, *Levadura Comprimida Leviatán, S.A.* enpresako akziodunak ere baziren. Mexikon ogiarendako legamia egin zuen lehen enpresa zen hau eta Braulio Iriarte berak eta laguntzaile batzuek sortu zuten 1913an. Miguel Burgaitzea Urrutia (Elizondo, 1871) Modeloko akzioduna eta Leviatán enpresako administrazioaile zen aldi berean. Leviatánek irabaziak Modelo Garagardotegia finantzatzeko eta kapitalizatzeke erabili ziren le-

Ikasketarik, ofiziorik eta dirurik gabe, 17 urterekin, Txokototik Mexikora gana

Braulio Iriarte Goienetxe, nekazarien semea, Elizondoko Txokoto auzoko Martindenea etxean sortu zen 1860. urtean. Inolako ikasketarik, ofiziorik eta dirurik gabe, gazte emigratu zuen, hamazazpi urterekin, Mexiko alderat. XIX. mendeko Nafarroako emigrazioarendako ez zen ohiko pausalekua Mexiko, baina Baztan aldetik aunitz gan ziren. Okindegi bateko langile gisara hasi zen eta XX. mende hasierarako okin sektoreko enpresari haundia zen, laurogei okindegiren jabea. Beranduxeago iringintzan hasi zen eta Mexiko Hiriko Euskaro errotaren jabea izan zen, Fermin Etxandi eta Juan Oteiza nafarrekina batera



Braulio Iriarte elizondarrak Mexiko Hirian duela 75 urte egin zuen lantegia zutik eta lanean ari da oraindik.

lehenik eta bera bakarrik, gero. Veracruzeko portuan Compañía Molinera Veracruzana zuen Beti-Ona errotaren jabea ere bera zen. Agustín Jauregi Iriarte (Elizondo, 1890) eta Jose Larregi Iriarte (Elbete, 1899) bere ilobekin batera.

Braulio Iriarte garagardogintza negozio berriaren bultzatzaile nagusia izan zen. Berak eman zion elkarteari garagardo enpresa eta Anzués izeneko lur eremua. Lur eremu hau 1920. urtean erosi zuen Braulio Iriartek eta bertan eraiki zuen lantegia.

Hirutan hogeita hamabost urte beranduago, leku berberetan mantentzen da Modelo enpresaren lantegi nagusia. Braulio Iriarte Centro Viscosko lehendakaria izan zen eta baztandarrak Mexikora gaiteko laguntza handia eman zuen.

hendabiziko urteetan. Braulio Iriarte hil zenean, 1932ko ekainaren 25ean, ordura arte lehendakari ordea zen Leongo Pablo Diezek hartu zuen lehendakari zena. Braulio Iriarteren konfidantza gizona zen Diez, baina guttina-guttina, bazkide nafarrek elkarte uzten joan ziren. Zugarramurdi 1929an utzi zuen kontseilari kargua eta Loperenak 1933an. Oianburu eta Buadés hil zirenean, nafarren nagusitasuna akautu zen enpresan. Pablo Diez lehendakaria izan zen 1971. urtera arte eta bere garaian, konpainia zabaltzeko politika egin zuen. 1971. urtetik gaurko egunera Antonino Fernandez Rodriguez, hau ere Leongoa, da enpresaren lehendakaria.

Munduko zortzigarren garagardo enpresa

Gaur egun, Modelo Mexikoko lehendabiziko garagar-

Gaur egun, urtean 3.950 milioi litro garagardo produzitzen ditu Iriartek sortutako Modelo taldeak.



do enpresa da eta Munduko zortzigarren. Corona garagardo marka (hemen Coronita bezala komertzializatzen da) mundu osoan gehien edaten den bosgarrena da. Zortzi lantegi ditu Mexikon eta Latinoamerikako haundiena izan den bertze bat egiteko asmoa du. Modelo taldeak urteko 39,5 milioi Hektolitro (3.950.000.000 litro) garagardo produzitzen ditu. ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>**e-mail:**ttipi-ttapa@topagunea.com**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.**Presidentea:** Pello Apeztekoa.**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoin.**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.**Administratzailea:** Amaia Goia.**Erredakzioa:** Aitor Arotzena,Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Salzar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernan-

dez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor,

Margarit Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Bernuet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Joseba

Olagarai, Nerea Mitxelorena,

Aitor Arotzena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafar-

roa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde****Laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-

tea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mahkomunitatea, Zugarra-

murdiko Akelarre Elkartea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria ... 2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria ... 160 Libera

Europa ... 4.000 Pta.

Amerika ... 16.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**GAURKOTASUNeko GAIA****Turismoa indartzen ari da gure inguruan****Abuztuan ez ezik, urte osoan
etortzen ari dira turistak
aurten**Noia ENETERREAGA
Berriko Partzeagoa

Joan den urtea ona izan zen eta aurtengoa oraindik hobea izaten ari da. Gainera, ez da abuztua bakarrik izaten hilabete ona. Uztailan gero eta lehenago hasten dira betetzen hemengo hotel eta etxe ruralak eta irailan, gero eta beranduago akautzen da. Pilarikako zubian, eguraldiak lagundu ez bazuen ere, aste osoa ona izan zen eta, orokorrean, urria hilabete ona izan da. Turismoa bizi denak edo hortik diru-sarrerak lortzen dituenak urte osoan nahi dituzte bezeroak eta hori lortzen ari da pixkanaka. Udan, Aste Santuan eta zubi luzeetan Katalunia, Valentzia, Madril eta, azken aldian, Andaluziatik etortzen ari da jendea. Asteburuetan, Nafarroa, Gipuzkoa, Bilbo, Aragoitik etortzen dira, hurbilagotik. Errepideak hobetzen ari direla nabari da eta Nafarroatik eta Aragoitik aste bukaera pasatzera gero eta gehiago etortzen dira. Normalean, landa etxe oso etara etortzen dira, koadrilan edo familiarekin etortzen dira eta errepikatzen dute, urtean lau-bortz aldiz. Turismoaren ikuspegitik urte emankorra izan da. Kostatu zaio ailegatzea, baina bide onean goaz.

**Eguraldia kaxkartzen
denean eguna pasatzeko
leku txukunak behar ditugu**Maitea EZKUTARI
Pizsoialako Partzeagoa

Aurtengoan guretzat harrigarriak diren aldaketak izan ditugu. Okupazio eta alojamentu aldetik gorakada izan da, ez bakarrik udan, baita beste garaietan ere. Baina gero, Turismo Bulegoan jeitsi egin da bisitarien kopurua. Kontraesan hori dago. Jendea lehendik informatzen dela pentsa daiteke, Internet-en informazioa begirahuta gero eta gehiago dira etortzen direnak. Katalunia dago, beti bezala, lehen tokian. Valentziatik pixko bat jeitsi egin da aurten. Gure ingurutik bizkaitarrak dira gehien etortzen direnak. Gipuzkoarrak urtean zehar etortzen dira asteburuetan, baina udan jeisten da. Gure kasuan eta, uste dut Nafarroa osoan berdintsu gertatzen dela, jatebaxtan gero eta gutxiago gastatzearen tendentzia dago, jendeak menuetara jotzen du. Normala ere bada, lau lagunekin familia batentzat otordu guztiak kanpoan egitea garestia baita. Turismoarentzat arazo handia da hemengo eguraldia: natura eta mendia nahi duzguna, baina eguraldia kaxkartzen denean egunak pasatzeko toki txukunak ez ditugu. Alde horretatik lan asko daukagu egiteko.

**Gan den urtean baino jende
gehiago ibili da, baina diru
gutiago utzi dute**Aia Mari IARZABAL
Sarako Turismo Bulegoa

Saran jende aintz ibili da uda huntan, joan den urtean baino gehiago, bainan gero diru gutiago utzi dute. Hori denean sentitu da. Badakizu, oporretan dira eta ez da gehiago deusik dohainik eta ez da errex jendeak dirua uztea: apartamentua ordaindu behar da, gero jan eta besteak egiteko dirua gorde behar da. Hunat etortzen diren gehienak frantsesak izaten dira. Urrian amerikanoak eta ingelesak ere etorri ziren, iaz baino gehiago, espainolak ere izan dira, Madril aldekoak, baita euskaldunak ere. Urrian bezalaxe, Aste Sainduan ere bertze aldeko jende aintz etortzen da, han bakantzak baitituzte. Pilotari buruzko esposizio bat izan da eta jendea informaziorik galde egin gabe sartzen da, hori dohainik baita. Igoera handiena agorrilean nabaritu dugu, 4.400 presuna izan baitira Turismo Bulegoan. Iaz 3.800 presuna izan ziren. Uztailan iaz baino jende gutxiago ibili da (gan den urtean 3.400 lagun eta aurten 3.200). Irailean iazko kopurua mantendu da, 1.200 presuna inguru. Urtarrilatik ekainera ere iaz baino jende gehiago ibili da. Jende ezberdina izaten da, lasaiago etortzen dena.

ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du**ARTEKARI
TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkeneira 9-13tara eta 15-19tara

• Ortzegun eta ortziraletan, betatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☎ Langile Autonomoak
- ☎ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☎ Lan-kontratarako laguntzak
- ☎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☎ Diru-laguntza ezberdinak
- ☎ Kontabilitateak
- ☎ IVA eta IRPF
- ☎ Errenta aitopenak
- ☎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☎ Bideragamitasun planak

Ramon Elosegi, lagun betiko

Uda honek harri latza sartu zigun bihotzean: kobxe istri-pu batean hil zen Ramon Elosegi biologoa eta mendi gidaria, bere familiarekin eta asto batek lagunduta Pirineo aldetik mendi ibilaldi baten itzulian zetorrela. Baina, nor zen Ramon Elosegi? Iruferriko Beorburuko herrixkan bizi arren, harreman haundia izan du Baztan-Bidasoarekin: gure eskualdeko hegazti harrapakariak ikertu eta zentsatu zituen, gero Itxusko Harrien Natur Erreserban babestuak izan direnak. Hainbat mendi bide, kaltzada eta, bereziki, Urdazubitik Belateraino zeharkatzen duen «Santiago Bide Baztandarra» landu eta zehaztu (gero Arkupeak Jubilatuen Elkarteak kide batzuekin ibili zuena), ditxozko egun batetan behar bezalako babes legala izanen duena («defentsarik onena, erabilpena» zioen). Bulego kutsu eta kargu ofizialetatik beti eskapoan, Ramon Elosegik konprometzu haundia hartua zuen Mendi Gidarien formazio eta profesionalizazio prozesuetan, ordea: ITGren ikastaro-

ak Donezteben eta Iruferran, Baztan-Bidasoako hainbat lagunok parte hartu genuelarik. Egun landa turismoaren baina natur aktibitateen enpresen garapena delarik, Ramonek gizakian eta bere profesionalitatean sinisten zuen; horregatik Nafarroako Mendi Gidarien Elkarteakultzatu zuen.

Letra hauek omenaldi xume bat bertzenik ez dira, hainbat ezagupen eta une goxo zurekin konpartitu dugunon aldetik, Ramon. Udazken atariko gau honetan, Kintoko oreinak-basahuntzak txilik izan dira. Zuk ba al dakizu zergatik? Nik ez; horretaz diot beti irakasle eta laguna izanen zarela. Ramon, adi-orik ez, lagun betiko.

Mikel ALBISU
(BEINTZA-LABAIEN)

Baserrietako irekitze lizentziari buruzko azalpena UAGNtik

Zuen azkeneko (287 zenbakia) aldizkaria irakurtzean, irekitze lizentziari buruz-

ko artikulua bat ikusi dugu eta bertan irakurri ditugun gauza batzuk argitu nahi genituzke eta baserrietarak pisika bat lasaitu.

Lehenik eta behin esan, momentuz EZ dakigula urtehasieran egiten den subentzioen eskaera egiteko momentuan lizentzia hau eskatuko duguten edo ez. Ez dago ezer ez zihurtaturik oraindik.

Hala ere, arazo hau, uztailan kuota eta mendiko subentzioa eskatzerakoan lizentzia hau eskatu zutenean sortu zen. Egia da, 1986. urteko dekretu baten ondorioa dela, eta garai hartan ikulua legalizatzea erreagoa izan zela, bertan agertzen ziren baldintzak betetzen baziren. Baserrietar askok ez zuten honen berri jakin urte hartan edo legea betetzen ez zutelako kanpoan gelditu ziren eta arazo haundiekin aurkitu dira. Agertu diren arazoak era desberdinetakoak izan dira eta horietako bat da lizentzia hau lortzen ez zutenek eta herrian bertan aurkitzen diren ikuluena. Dekretu horren arabera, ikulu hauek 15 urteko epea zuten herriek irletzeko eta epea berez datorren ur-

teko abuztuaren 7an akitzen da, baina UAGNtik esan nahi diegu Ingurugiro Saileko kontseilari eta zuzendari orokorarekin daramagula uztailetik hitz egiten. Bilerak batzuk izan ditugu eta bertan adierazi dugutena da legeak aldatu nahi dituztela eta horretarako Nafarroako baserrien egoera aztertzen ari direla ahalik eta jende gehienak sar daitezen lege berriaren barnean eta lor dezaten lizentzia hau. Esan behar dago Ingurugiro Sail honetako arduradunak prest egon direla haseratik arazo hau ahalik eta hobekien eta azkarren konpontzeko ahalgintetan eta eskertzeko da bere disposizio ona. Bukatzeko esan UAGN-ek bilera horietan proposamen batzuk adierazi zizkiola Ingurugiro Saileko agintariari, baina itxaron egin beharko dugu aldaketa guzti hauen berri jakin arte eta lanean jarraitu zuzenean Departamentu honekin.

Airitze MURATORI
(UAGN-Elizkono)

EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 • (948) 627547 **LESAKA**

LEGARRA
Legarra, 9 • (948) 637 030 • **LESAKA**

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

Enkuadernatzeak esprelean ere egiten dira



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188

Isabel MILLET HEYRIES *Etralar*

Sexu abusuen ondorioek helduaroan irauten dute



Eskasak dira sexu abusuei buruzko ikerlanak; Euskal Herri mailan ez dago, eta gutxiago Zerbitzu Ofizialik. Kanpoan, ikerlan gutxi daude eta fidagarriena batek esaten diguna ikaragarria da: 5 emakumetik lek sexu abusua jasotzen ditu haurtzaro edota gaztaroan. Duela gutxi hasi dira sexu abusua aipatzen, batez ere gaur egungo haur eta gazteak babesteko asmatan. Baina ez dira ahaztu behar gaur emakume direnak eta beren haurtzaro edota gaztaro garaian sexu abusua jaso zituztenak. Haienztat, oraindik, ixiltasuna da nagusi. Haiek gogoratuz eta argi izpi bat ematekotan, idatzi dut artikulu txiki hau.

Egoera latz honen analisi txiki bat egiteko, emakume izatearen ikuspuntua auzeratu dut. Haurtzaro edota gaztaro garaian jasotako abusua, gizarte patriarkalaren botere, indarkeri eta menperatzearen erabilera dira. Sistema patriarkalak haurrak, emakumeak bezala, bere jabego bezala begiratzen ditu, baita plazer sexuala lortzeko tresna bezala ere. Emakume bezala jasotzen dugun indarkerien barruan kokatu behar dira sexu abusua. Eta kasu horietan, egoera zailagoa izaten da erasotzaileak inguru hurbilekoak izan ohi direlako: aita, aita-ordea, anaia, osaba, irakaslea, familiaren konfiantzako gizon bat. Hau da: haur edo gazte-

a guztiz fio da berarekin, eta kasu gehienetan maite du. Bortxaketa fisikoa jasateaz gain, bere konfiantza, maistasuna, eta identitate sexuala minduta geratzen dira. Arrazoi osoz, esperientzia honi trauma deitzen zaio. Trauma bat zera da: sakon, zabal eta luzerako markatzen duen esperientzia. Haurtzaro edota gaztaro garaian sexu abusua jasotzeak ondorio latzak ditu emakumearentzat, eta helduaroan irauten dute: beldurra, konfiantza falta, hiperzaintza, bu-

Egoera zailagoa izaten da erasotzaileak inguru hurbilekoak izan ohi direlako: aita, aita-ordea, anaia, osaba, irakaslea, familiaren konfiantzako gizon bat. Haur edo gaztea guztiz fio da berarekin eta maite du.

ruestima apala, autoerruduntasuna, depresioa, fobiak, gorputzari gorrotoa, desberdina sentitzea, haserre sentimendua... adibide gisa. Ixiltasun beltz honetatik ateratzekotan, emakume batzuk hasi dira haurtzaro edota gaztaroan jaso zituzten sexu abusuei buruz hitzegiten. Momentuz apal-apal hitzegiten dute, haien baitan dauden emozioak begiratu; momentuz pixkanaka-pixkanaka hitzak ematen dizkiete bizitako erasoiei; momentuz guttiki-guttiki hitz egiten dute elkarrekin, esperientzia hori haiei bakarrik ez zitzaie gertatu jakiteko. (Kontaktuan jarri nahi izatekotan, idatz ezazu Berako 10. posta-kutxatiler)

Castillo SUAREZ *Bortziritako Euskara teknikaria*

Eskualdeko ahozko tradizioa biltzeko beka



Bortziritako Euskara Mankomunitateak eskualdeko ahozko tradizioa jasotzeko beka deialdia egin du. Azaroaren 15a bitarteko epea dute egitasmoa aurkeztu nahi dutenek, zer egiteko asmoa duten adieraziz. Baina zer da zehazki ahozko tradizioa jasotzea? Zer egin beharko du beka lortzen duenak?

Ez da liburuetan arakatu egin beharreko ikerketa izanen. Izan ere, lana grabagailua, mini disca edo bideoa besapean hartuta egitekoa da. Elkarrizketatuei tradiziozko datuak, alegia belaualdiz belaualdiko errepikapenean oinarritutakoak "atera" beharko zaizkie: ipuinak, erranera zaharrak, kantuak, kontakizunak...

Haatik, Bortziritako Euskara Mankomunitatearen nahia ez da erabilgarritasunik gabeko ikerketa egitea. Hortaz, beka jasotzen duenak zer egiten ahal den material horrekin, nola erabil daitekeen ikastetxeetan, komunikabideetan... proposatu beharko du. Laguntzaren kopurua 1.000.000 pezetakoa izanen da eta hiru epetan ordainduko da, lehendabiziko ordainketa esleipena egin eta berehala. Handik sei hilabetera bigarren zatia ordainduko da eta azkena lana bukatu eta emandakoan. Hautagaiak bakarka edo talde bat osatuz aurkeztu ahal izango dira lehiaketura.

Nola jasotzen ahal da ahozko tradizioa?

Badaude ipuin, erranera, pasadizo... unitz dakizkiten pertsonak. Haiek "lokalizatu" egin beharko dituzte ikerlariek eta solastu... Bisita bat baino gehiago egin beharko zaie ahalik eta material onena erdietsi nahi bada. Gaur egun hagitz bitarteko onak daude ahozko testigantzak jasotzeko. Bideoa erabil daiteke edo, bertzenaz, minidiska: pertsona horri mikrofona golkoan paratu eta, hasieran begiratu eta ikutu-

Honelako lanetan altxor ikaragarria lortzen ahal da, batez ere zaharrenean hitzetan. Altzor hori urtetik urtera galtzen ari da, gure aitaxi-amatxien desagertzeaz bat. Orain da momentua horiek guztiak jasotzeko.

ko badute ere, gero ahantzi egingen zaie eta naturaltasun osoz solastuko dira. Hasieran beharrezkoa da gurekin nolabaiteko gidoia eramatea. Egia erran, beti da ona gidoia izatea. Geroago "informatzaileek" bereaiek erranen digute hau nori galdetu, bertzea nori ezin zaion aipatu ere egin... "informatzaileek" bereaiek markatuko dizkigute lan-ildoak. Neronek esperientzia piska bat badut gisa honetako lanetan eta altxor ikaragarria aurkitzen ahal da, batik batik zaharragokoen hitzetan. Altzor hori, gainera, urtetik urtera galduz doa gure aitaxi-amatxien desagertzeaz bat. Orain da momentua horiek guztiak jasotzeko.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunerari 00ko urriak 14

«Baxu elektrikoarekin musika estilo ezberdinak jorratzea izan da nire helburua: jazz, pop, funk eta bossa-nova, bertzeak bertze. Horrela, nahiz eta instrumentala izan oso erraz entzuten den diska osatu dudala uste dut».

Mikel ARTIEDA
Berkio musikaria
Egunerari 00-10-14

«Ni gaztearen bertso estiloaren jarraitzailea naiz, hau da, musika edo antzerkiarekin uztartuta dagoena, bide berriak jorratzen ari

dira. Bertsolaritza molde berrietara egokitu behar da».

Iñigo OLAETXEA
Lesakako bertsolaria
Egunerari 00-10-20

«Gizon berri bat naizela erraten ahal da. Pilotan egiten ahal dudana guziti erakusteko ilusio eta gogo luandekin nago. Zuzena adarretatik heltzeko ordua da eta horrelaxe egiten dut».

Mikel GOÑI
Oronoko pilotaria
Diario de Navarra 00-10-20

- ◆ **Paisaia bat, usain bat eta soinu bat?**
- ◆ Paisaia: nere baserria. Usaia: Etxalarako Asauko usaia. Soinua: despertadoriarena.
- ◆ **Konfesatzen ahal den bizio bat...**
- ◆ Ortzil arratsin lagunekin hartzen den kafia.
- ◆ **Lo egiteko jantzirik edo deusgabe?**
- ◆ Hoberena markako kantzontziloekin.
- ◆ **Mutil bat begiratzerakoan, aintzintik edo gibeletik?**
- ◆ Bietatik, goitik beheiti.
- ◆ **Lehen muxua, non eta noiz?**
- ◆ Hori ezin da kontestu.
- ◆ **Irakurtzen al duzu komunean?**
- ◆ Ez nuen uste komuna irakurtzeko zenik.
- ◆ **Nor sartuko zenuko «Gran Hermano»-n?**
- ◆ Etxalarren infiltratu den Txope, titulua aldatuz: «Buru Handi».
- ◆ **Inoiz eginen ez zenukeen gauza bat?**
- ◆ Ni ere «Buru Handi»-ra sartu.
- ◆ **Nori emanen zenioke belar ondoko bat?**
- ◆ Bueltatuko ez didan bateri.
- ◆ **Ilargi beteko gauetan...**
- ◆ Booooooooooooooooooomb!
- ◆ **Kazetaria bazina, zein berri idatziko zenuko gustora?**
- ◆ Tamarak (no cambie...) gure herriko «paseante berdeak» hipnotizatu eta denak Madril aldera eramán dituela.

**Ainhoa BERRUETA**

Ingeles filologiako ikaslea
ETXALAR



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Alzateko Plaza, 2
BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



ZALAIN
Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

EGUNERO, BIENIAL ETA KARTA

Beda eta bankoteak ematen dira

PIKABEA
Molinero drogerian
galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

lizpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista

Haritzo

Legia 1, behea • BERA • © 948 630652

ttipi-ttapa Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan

7.100 harpidedun
24.000 irakurle

© 948 63 11 88

Nafarroako Euskal Kantu txapelketan izena emateko epea azaroaren 10ean akituko da

Xorroxin eta Karrape Irratietan ematen ahal da izena gure eskualdean

TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak zortzigarren aldiz antolatu duen Euskal Kantu txapelketan izena emateko epea azaroaren 10ean akituko da. Eskualdean, Elizondoko Xorroxin Irratian (948 581226) edo Leitzako Karrape Irratian (948 610914) ematen ahal da izena. Txapelketa honen helburu nagusiak euskal kantugintza zabaldu eta erakustaraztea, kantaizeko zaletasuna piztea eta kantari berriak plazaraztea da. Horretarako, 15 urteik goitiko edozeinek har dezake parte, bakarrik, bikotean edo 3 partaidetik 10 arteko taldetan. Beti ere kantari amateurak izan behar dute, ez beren izenean salgai dauden grabaketak ekoiztu dituztenak.

BI KANPORAKETA SAIO ETA FINALA BORDATXON ABENDUAREN 16AN

Urtero bezala, bi kanporaketa saio egingen dira aurtengo kantu txapelketan. Lehenbiziko



Duela bost urte Bordatxon egindako finalean, Leitzako talde bat kantari. Aurten ere Donezteben izanen da finala.

Artxibokoa

saioa Tafallako Kultur Etxean egingen da, azaroaren 25ean, arratsaldeko 5etan. Astebete beranduago, abenduaren 2an, Agoitzeko pilotalekuan egingen da bigarren saioa, arratsaldeko 5etan. Final nagusia, berriro, Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan izanen da, abenduaren 16an, arratsaldeko 4,30etan. Epaimahaia Fermin Iriarte, Zizurreko San Fermin eta Zangozako Nora abesba-

ztetako zuzendariak, Arantza Ezkurra, Bur-latako Musika Eskolako irakasleak eta Amaia Zubiria kantariak osatuko dute. Finalaren ondotik, urteroko ohiturari segituz, partaide guzkiekin afaria izanen da. 1.300.000 pezetako aurrekontua du txapelketak eta Euskal Kantuzaleen Elkarteak Nafarroako Gobernuo Kultur Departamendua, Nafarroako Rural Kutxaren eta Tafalla,

Agoitz eta Doneztebeko Udalen laguntza izan du antolaketan.

TXAPELKETA URTERO EGINGEN DA

Euskal Kantuzaleen Elkarteak kide den Pablo Joxe Aristorenak adierazi digunez, hemendik aitzinera kantu txapelketa urtero antolatzeko erabakia hartu dute: «Txapelketa bi urtean behin antolatuz gero, partehartzaile izaten ahal direnen behar

bezalako prestaketa zailagoa bilakatzen da».

Joan den urteko partehartzaileen maila puntakoa suertatu zen, Elkarteak argitaraturako CD-an ageri denez. Baina, txapelketaren helburuak kontuan hartuz, maila apalagoko kantarien partaidetza bilatu nahi dute: «Maila apalagoko pertsona eta taldeen partaidetza ezak kezkatzen gaitu, izan ere txapelketa bera balio-garri baita euskarazko kantu zahar eta berriak landu eta kantuzaletasuna herriz herri, taldez talde hedatzeko».

Eskualdeko kantariak maila ederra erakutsi zuteniaz, Bakarkai, Estibalitz Agirre beratarra bigarren izan zen. Bikoteka, Jon Pellejero eta Jaione Olazabal are-soarrak ere bigarrenak izan ziren. Taldeka, Le-karozko Lainopean taldeak lehen saria irabazi zuen eta Leitzako Yoartzun taldeak bigarrena. Leitzarrek entzuleen saria ere jaso zuten. Bi taldeek Euskal Herriko txapelketan hartu zuten parte.

ERROTASAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 699 • BERA

bortzIRUDI

BERA

FOTOKOPIAK • INKUBADURAZKOAK • PLASTIKAZKOAK • FAXA • E-MAILA • SKANERBIRA • PAPERTEGIA • ARGAZKI MUNTAK • DISEÑU GUMIBOIA • INPRUNTA LANAK • SERBIZIOAK • FOTOTILEAK • PUBLIZITATIA

Eztegara 26 behea • Tel-Faxa: 948 63 15 21

**Alberto
RETEGI**
abokatua

Altzate 17
BERA
☎ 948 630 763



Arg.: Egunkaria

Kafe-antzerki zikloa eginen da azaroan herriko ostatueta

Jendea ez da, nonbait, antzerki areto-etara nahi bezainbarte joaten, eta horri buelta emateko modu bat da kafe-antzerkia. Izan ere, Berako Euskara Butzordeak antzerkia ostatueta berria ekarri nahi du ziklo honen bitartez. Hilabete honetan hiru talde ariko dira Errekalde, Pui eta Lixoia ostatueta. Hasteko, azaroaren 12an Goizeko Izarra taldeak bere ikuskitzuna eskainiko du Errekalden. Hilaren 19an Matxinek "Ni naiz neu" antzez-lana taularatuko du Pui, eta Ander Lipus bizkaitarrak, azkenik, "Ardoaz" monologoa antzeztuko du azaroaren 26an Lixoian. Emanaldi guztiak arratsaldeko 7etan izanen dira.

Helbidea gaizki idatzirik duten kartak itzultzen hasi da Correos

Zenbait karrikaren izenak aldatu egin dira berriki

ASIER GOGORTZA

Berako zenbait karrika izenez aldatu eta etxe batzuk berri ere antolatu dituzte. Ez da atzo goizeko kontua, aitzineko legealdian Udaltzateak hartutako erabakia baita. Dena den, berriki hasiak gara horren ondorioak somatzen, Correosek eskutitzak banatzeko orduan xuxen idatzirik ez dauden helbideak itzultzeko erabakia hartu duelarik. Izan ere, gaur den egunean karta gehienak lehengo helbide zaharretara bidaltzen dira oraindik, eta orain arte postariak karta bako-

txa bere nagusiaren etxera eramateko lana hartu badute ere, hemendik aitzinera gaizki daudenak bueltanigorriko dituzte zuzenean. Bidaltzailearen daturik agertzen ez bada posta bulegoan geldituko dira kartak. Beraz, komeni da behingoan helbide berriak ikasten joatea.

IZEN BERRIEN ZERRENDA:

Lehen Pio Baroja karrika zenak Julio Caro Baroja izena hartu du orain, eta Suspeltiki zena Hegoalde da orain. Hego Suspela karrikak Ugaltubia izena hartu du, eta Itzea karrikatik

Altzatera doaien estrata estu horrek Mugaldea izena du orain. Altzateko Plazatik Lamixine aldera doan karrikak, berri, Pio Baroja izena hartu du.

Kaxematik Matzadara bidean dauden baserri guzi hoietara eskutitzak bidaltzeko Suspeltiki karrika idatzi behar da helbidearen tokian. Berako plazatik goiti dauden etxeetan (*Casas Baratas*) ere izan da aldaketarik, gaur egun Plaza Zaharra baita horko izen ofiziala.

ARANTZA ETA IGANTZI PLAZAK

Agerran estreinatuko

berri dituzten babes ofizialeko etxeetan, bi plaza berri izanen dira orain, Arantza plaza eta Igantzi plaza hain xuxen.

Hauk dira karriken berrantolatzeak ekarri dituen aldaketa nabarmenak, baina erran behar da etxeen zenbakiak ere aldatu dituztela zenbait tokitan, nahiz eta karrikak lehengo berak izan.

Beraz, aldaketa guzi hoietaz alde aurretik informatzea da hobereana, bidaltzen ditugun eskutitzak ahalik eta lasterren hartzailearen eskuetara ailegatzeari nahi badugu.

Ibardingo bentek dirulaguntza emanen diote Gure Txokoari

Heldu diren 3 denboraldietan erregional eta nesken futbol taldeei dirulaguntza emanen diete Ibardingo zenbait kantinek. Akordioa benta guzietan sinatu ez bada ere, futbolariaren kamisetetan "Ibardin" izena agertuko da bakarrik.

Ondoko hauek dira Gure Txokoarekin akordioa egin duten bentak: Bentaberi, Ari benta, Arrago Bide, Miguel Benta, Benta Peio, eta Biok. Sei hauek gain bertze bi enpresek ere emanen dute dirulaguntza: Martiko fabrikak eta Vinos Arzak hondarribitarrak. Gure Txokoaren kartel guzietan agertuko dira izen hauek.

LABEZAR
© 948631076 • BERA

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Alzate, 5 • © 948630083 BERA

© 948 63 1462
Alzate 1 • BERA
Xirgil

Bidasoako enpresei bideratutako zerbitzu zentroa jarri dute Alkaiagan

Urriaren 27an zentroa barnetik ikusteko aukera eman zuen Cedernak

Artor AROTZENA

Irailean Enpresen-tzako Zerbitzu Zentro berri bat martxan paratu du Cederna Garalur elkarteak Alkaiagako industrialdean. Zentro hau, Sakana eta Zaraitzukoekin batera, Nafarroako Mendialdean antzeko ezaugarriak dituzten Zentroen Sarearen barnean dago. Zentro hauen bitartez, Cederna-Garalur erakundeak ekonomia eta enplegu sustapeneko zerbitzuak eskualde guztietara zabaltzen ditu.

Bidasoako enpresei bideratutako Zerbitzu zentro hau martxan paratuta, enpresak sortu eta hauen hazkundea sendotzeko eta prestakuntza, aholkularitza eta orientazio ekintzak garatzeko eta herritar guztien eskura baliabide materialak dituen zentroa eta pertsonal tekniko aditua paratzen da. Cederna-Garaluren asmoa zerbitzu hau Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana eta Baztango herritar guztiei ezagutzera ematea da. Honenbertez, instalazioak ezagutzera eman eta hauez egin daitezkeen erabilpen aunitzen berri izateko, ateak denentzat irekita izan zituen Jardunaldia anto-



Alkaiagako industrialdea 1997ko martxoan zabaldu zen eta geroztik aunitz izan dira bertan lantegia kokatu duten enpresak. Orain, Bidasoako enpresei zuzendutako zerbitzu zentroa jarri du Cederna-Garalur-ek.

latu zuten joan den ortzirailean, urriaren 27an. Alkaiaga industrialdeko Alasta karrikako 28. partzelan dagoen Zentroko lan-taldea planteatu ziren galdera eta proposamen guzietan erantzuten izan zen goizeko 9etatik 1etara.

Argazkigintza ikastaroa

Lesakako Herri Eskolak mendiari eta naturari buruzko argazkigintza ikastaroa antolatuta du, Udalaren laguntzaz. Izena emateko epea azaroaren 7an akautuko da. Izarra okindegian eman behar

da izena, 1.500 pezeta ordainduz. Jesus Mari Guiroy argazkilaria izanen da irakasle eta bi orduko hiru saioa egingen dituzte larunbat arratsaldetan, azaroaren 11, 18 eta 25ean.

Argazkigintza kontuekin segituz, azaroaren 15ean akautzen da Beti Gazteren argazki lehiaketan lanak aurkezteko epea.

San Fermin elkarteko zuzendaritza

San Fermin erretiratuen elkarteak bi urte-tik behin aldatu behar du Zuzendaritza Batzordea.

Orain egitea suertatu da eta kandidaturaren bat aurkeztu nahi duenak, erretiratuen ostatuan dauden paperak bete eta heldu den urteko ilbeltzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dituzte ostatuan.

1973-74ko kintoen bazkaria

Azaroaren 18an egingen dute 1973 eta 1974 urteetan jaiotako kinto bazkaria Kattu jate-txean. Parte hartu nahi duenak azaroaren 12a baino lehen eman behar du izena Haizegoa edo Koxkilla ostatueta, 2.000 pezeta utziz.

Perfonaia

Herriko kazetaria sortu zeneko mendeurrena bete da aurten

Duela ehun urte, 1900. ean jaio zen Jose Lekaroz Goñi Lesakako kazetaria. Bere bizitzari eta lanari buruzko aipamen gutti baldin badaude ere, Gerra Zibilaren aitzineko urteetan euskal kazetaritzaren ordezkari bikaina izan zen Lekaroz. 22 urte zituela La Voz de Navarra egunkari jeltzalean hasi zen lanean eta zuzendari izatera ailegatu zen urte guttitan. Bi aldiz gartzelera eramian zuten, Primo de Rivera eta Francoren diktadurapean, hain zuzen. 1927ko abuztuan La Voz utzi eta Bilboko Euzkadí egunkarian hasi zen. 1930ean Donostiako El Día egunkarian hasi zen, hau ere EAJren lidokoa. Hilabete guttitan zuzendari egin zuten eta kargu horretan egon zen gerra piztu zen arte. Gerrak eta ondoko errepresioak ixlarazi zuten Lekaroz. Duela 36 urte, 1964ko azaroaren 2an hil zen eta Lesakako kanposantuan lurperatua dago.



Jose LEKAROZ

KATTU
ostatu - jate-xea
Plafar kabinatuak eta monak
☎ 948637573 • LESACA

XATURETXEA
JATE-XEA
Tfnoa: 948637027 LESACA

ANITA BERRA
Biltza 41 • ☎ 948 637518 • LESACA

IRU BIDE
ESTETIKA
Tfnoa: 948 637 127
LESACA

Lurrinda
Marian
Lendiberrí
Estetika
Beldu Plaza 2 ☎ 948637711 • LESACA

ETXALAR

Usategietako igandea giro eder eta euritsuarekin joan zen

Aparkaleku berria egin dute Usategietan

JOSEBA ETA NEREA

Nahiko asteburu mugitua (eta aldi berean euritsua) izan genuen urriaren hirugarrena. Hasiera batean, larunbaterako, Mairu antzerki talderaren obra ikusgai bagenuen ere, azken momentuan, bertan behera utzi zen. Ondorioz, gazteek triki-poteoa antolatuta zuten, herriko trikitalariek. Ondotik aforian, 82 lagun bildu ziren Anttonion. Igandean, berriz, euria zela eta, nahiko hutsikusi genuen goizaldean Usategietako gaina. Arratsaldez ordea, bai Baztango dantza taldearen saioak eta ondotik Alaitz eta Mairu derren erromeriak jende mordoxka ekarri zuen plaza ingurura. Dantzaldiko deskantsuan egin zen zozketa. Hauek dira sarituak: 12 uso bizirik eta egurrezko orgatxo pertsona berak eraman ditu, Jose Mari Irigoienek. Egurrezko lorontzia Mireia Martinezek eta egurrezko 2 aulkiak Asier Arburuak. Altxata Kultur



Pelikula bat grabatu da Lizaietan

"*Alla Rivoluzione sulla 2 CV*" (Iraultza bi zaldikoan) da Etxalarren grabatu berri den pelikularen izenburua. Produktora italiar-portugaldar honen filma grabatu ahal izateko guziz itxuraldatu da Lizarieta. Hainbat herritarren laguntzari esker, Aduanak duela 30 urte zuen itxura berreskuratu du; barrerak, banderak, leihoak... Aste bete inguruz prestatu den dekoratua urriaren 13an erabili zuten. Egun hortan jendez bete zen Lizarietako gaina: aktoreak, produktoreak, kamara-laguntzaileak, dekoratzaileak, makilatzaileak, teknikoak... 100 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten pelikularen grabaketan. Filmak 1974ko gertaerak biziarazten dituenenez, garai hartako arropa, auto, traktore, kamioi, eta abarrez hornitu zuten Sara eta Etxalarren arteko muga.

Arg. Joseba Olagari

Elkarteak balantze positiboa egin du egun honetaz; eguraldiak lagunduez bazuen ere, eta espero baino jende gutxiago ibili arren, bildutako diru-kopurua bertze urteetan baino

handiagoa da. Honela, Etxalarko dantza taldeak 200.000 pezetako diru-sarrera izan du. Lerro hauen bitartez Altxatak eskerrak eman nahi dizkie laguntzen aritu ziren herritarrei.

Usategietako aparkalekua

Urriaren hasi ziren larrendin aparkaleku berri bat egiten. Bada urte saila M^o Esther Berrueta (Usategietako etxekoandreak) herria-

renak ziren lurren jabe zela. Hala ere, jabetza izateko baldintza batzuk bete behar izan zituen bere garaian: Txorilepora pasoa utzi, igandeko musikari baimena eman... Berriki, baldintza hauek kentzearen alde, aparkalekuko obren kargu eginen zela adostu zuen udalarekin. Azken honen baieztokarekin burutu ditu 1.240 metro karratu dituen aparkalekuaren lanak. Honela, chizi sasoiari bai usazaleek eta bai bertaratutakoek izan ohi zuten arazoari bukaera eman zaio.

Margo erakusketa bitxia Herriko Ostatuan

Herriko Ostatuan, zerbait hartzeko aukeraz gain, arteaz gozatzeko modua ere bada. Egunotan Miguel Alfredo Hernandez Busto "Zirika" artistaren lanak daude ikusgai Eguberriak ingururarte. Gas-teiztar gazte honek duela 4-5 urte egin zuen "Nire aitaren etxetik" izena daraman 40 koadroko bilduma.

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
 948635290 **ETXALAR**

UDAZKENEKO MENU BEREZIA

- Ehiza fiantze sorta
- Onddo nahaskia
- Aza pastela odolki z betea bertako ilarren saltsa eta pikilo-piperekin
- Usoa Etxalarko era zaharretan, galeper arraultzarekin
- Gazta eta arandano tarta
- Erriogako etxeko ardo-botila

3.500 pezeta

HARITZPE
 948635235
 948635038

GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

LESKA

IGANTZI



Isasmendi Inguruan pinua landatuko da.

Aurtengo neguan egingen da Berrizaun inguruko landaketa

Baratzondon aste honetan hasi dituzte mus eta partxis txapelketak

OSKAR TXOPERENA

Joan den uztailearen 14ko plenoan onartutakoaren arabera, enkan-tean atera zituen Herrikoetxeak Berrizaun

inguruan dagoen Isasmendiko luberriaren azpia garbitzeko, ixteko eta plantatzeko lanak. Foresna-Zurgaiak egin zuen insignis pinua landatzeko proiektua eta

eskaintza bakarra hartu zen Herrikoetxean, Pako Alzuri Bertizena, 3.413.755 pezetakoa. Heldu den urteko martxoaren 15eko egon beharko du akautua.

Onddo aunitz

Aurten ez omen dago kezarik atera diren onddoengatik. Hila-betea joan da ateratzen hasi zenetik eta ez dago bertze komentario-

rik, zenbaitzuk aspertu ere egin direla onddo biltzen.

Egia erran, ia egunero, goiz erdirako ikusten zen jendea menditik etortzen kapaxo edo boltsa politekin. Kalitate aldetik, berriz, onddo fresko eta ona bildu omen da, baina, horretan adituak direnek diotenez, ur dexterekin. A zer gozarena afizioa duenarentzat!



Hasiak dira Baratzondoko mus eta partxis txapelketak

Aste honetan zen hastekoa Baratzondo Jubilatuko Elkarteak urtero tenore honetan antolatzen duen mus eta partxis txapelketa. Jakin ahal izan dugunez gainera, aurten aunitz izanen dira elkarrekin lehiatzera Baratzondoko egoitzara bilduko direnak, hamasei bikotek eman baitute izena musean eta hamabik partxisean. Ez dago batere gaizki. Larumbata edo besta bezperetako ilunabarretan jokatu da musean eta besta egunetako arratsaldetan partxisean. Finalak eta txapelketaren inguruan egiten den bazkaria abenduaren hasieran izanen dira, baina badago oraindik hastia horren berri emateko. Argazkia, berriz, 1995ean, lehendabiziko txapelketaren sari banaketaren ondotik hartutakoa da.

Argazkia: Oskar Txoperena

BERRIZTUN S.L.
 Ingenieria mekanikoa
 Injineria erakuntza
 Sidaketak eta despiezoa
 Intenimendu mekaniko
 Toroa, fraxadarak, errektifikadarak
 Igantziko Bentak • t 948 627572 • Faxa: 948 637508

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tñoa: 948630018 • BERA

KOXKILA OSTATUA

 Zarandia, 4 - LESAKA

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gilota...)
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
 Igantziko Bentak • t 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ANTOJOS
boutique pre-mama
 Arbelaiz Jauregia
 Iglesia karrika 8
 (Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
 Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

Bideak moldatzeko gastuaren zati bat auzotarrek ordaindu beharko dute

Azken udal bilkuran erabakitakoaren arabera, Basarteia enpresak egingen du proiektua

ELIXABET ETA GARBINE

Baserrietako pistak moldatzeko finantzazio plana onartu berri da Herriko Etxean. Plan horren arabera, Nafarroako Gobernuak ematen ahal duen dirulaguntzaz gainerakoa, erdibana ordainduko da udala eta auzotarren artean. Kontribuzio berezia izanen da, hortaz, bideak moldatzeko.

Bertzalde, urriaren 20ko udal bilkuran auzoetako bideak moldatzeko proiektua ere onartu zen. Basarteia SL enpresa arduratuko da horretaz. Honekin batera, obrak egin behar diren lurren eskuragarritasuna aitortzea eta Nafarroako Administrazio Publikoaren kontratuei buruzko Foru Legearen artikuluei jarraituz, obra esleitzeko espedientearen bidez prozedura ire-



Baserrietako bideak moldatzeko Nafarroako Gobernuak ematen duen diruz gainerakoa, Udalak eta auzotarrek erdibana ordainduko dute.

ki eta lehiaketa erabiltzea, horretarako baldintza plegua adostu zuten. Udalak obra hauak 4.598.484 pezetatik atzerako ditu lehiaketara, BEZ barne. Honetatik 2.162.331 pezeta BEZ barne proiektuaren errealizazioa da.

Eguzkialde auzoko bideak moldatu ditu Arkaitzak

Orain dela berriki Arkaitza SA enpresak Eguzkialdea auzoan Bideberri eta Errota arteko bidea, brea kapa berria bota eta zabaldu zuen. Lanaren gastua bi-

dali dio enpresak Herriko Etxeari: 3.338.086 pezeta BEZ barne kostatu da. Hori dela eta, plenoan, lana eta gastua onartu zen, eta gastuaren erdia udalak ordaintzea, eta bertze erdia auzotarrek pagatu beharko dute.

Kultur Egunak 2000

Egun hauetan etxera ailegatu izanen zaizkizue denei aurtengo Kultur Egunen egitaraua. Lehendik aipatu badugu ere, asteazkenean, Domisandu egunean, V. Baserrietaren Egunarekin hasi da. Ortzilean, 2:30etan haurrentzako tallera izanen da Paper birtziklaketa gurekin. Gero, 6etan Kollins Clown taldearekin antzerkia eskolan. Larunbatean ere 8etan, antzerkia izanen dugu Lesakako Mairu taldearen eskutik. «Trizikloa» lana. Helduentzat apropos den antzeslan hau, eskolako gimnasioan izanen da eta gaueko 11etan, Jon Bergaretxeren kantaldia izanen da gorapean.



MARTIKO

Gure baserrietako produktua

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkalaga Industrialdea • BERA

Zure inguruak klase guztiko insektuz (komoro, zinaume, armiama, kukuz...) eta arato-kagitoraz garbitu nahi baduzu, delat! Gu arduratuko gara honetaz. Termite eta Polifen kontrako tratamendua



948630155
BERA

FUNERARIA ZERBITZUAK Lesaka-Donoztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduentzat pertzurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR



- Sukaldeko tresnak

- Opariak

- Pinturak

Albistur, 51 LESAKA
© 948 63 75 58

Eri eta adintuei uzteko material ortopedikoa bildu nahi du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak baditu gurpildunaulkiak, ohatze artikulatuak, koltxoak, grina eta gisa horretako material ortopedikoa, behar duten eri edo adintuei uzteko.

Azken urte hauetan aunitz izan dira Mankomunitatearen material hori eskatu eta erabili dutenak. Horregatik, idazki baten bidez, etxean erabili gabe dauden material hauek beraien esku uztea eskatu du Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak: «Zuen etxetan horrelako materiala baldin baduzue eta ez baduzue erabiltzen, mesedez guri deitu 948 635036 telefonora eta guk bilduko dugu, gero behar duten eriek erabili ahal izateko».



Arrigazteluko lanen ondorioz baserri batzuk inkomunikatuak gelditu dira

Bidasoa auzoko bizilagunak kexu agertu dira beraien egoerarekin

JAIONE ETA ALBA

Arrigazteluko saihesbidearen lanen ondorioz, baserri batzuk inkomunikatuak gelditu dira eta ez dute ibilgailuak sartu eta ateratzeko modurik. Lehen ere egoera txarrean zeuden baserri hauek, baina Bidasoa errekek behin behineko zubia eraman zuen, azken eurien ondorioz.

TRENABIDEA ERE EGOERA KAKARREAN UTZI DUTE

Bidasoa auzoan bizi diren Santiago Inda eta Pili Insaustik errandakoaren arabera, «egia da euri aunitz egin duela, baina honelako erriak urtean lau edo bost aldiz izanzen ditugu. Aldiro biderik gabe gelditzen bagara, ederra daukagu!». Altsuperea, Espelosin, Bortenea, Txurupita, Jauregi eta inguruko bertze baserri batzuk trenabidea erabiltzen zuten orain arte herra joateko, baina Arrigazteluko lanetan ari diren kamioi eta makinek hondatua utzi dute. Proiektuan, errepide



Pili Insaustik eta Santiago Indak, Bidasoako auzotarren arrenkura azaldu zuten. Gibelean, azken asteetako euriteen ondorioz erori zen zubia.

Argazkia: ttipi-ttapa TB

berria egin ondotik Bidasoa auzotik errepide zaharrera zubi bat ere eginen dela ageri da. Auzotarrek zubia aitzinetik zergatik ez den egin galdetzen dute. «Gero egin behar badute, zergatik ez dute aitzinetik egin eta behin behineko zubi hauek alde batera utzi? Haseran, kamioiak eta herritik pasatu behar zirela

erran zuten, baina orduan Herriko Etxea mugitu egin zen eta zubitik pasatzea erabaki zuten. Zoritxarrez, oraingoan ez da horrenbertze mugitu Udala».

EGURREZKO ZUBITIK ERE PASATZEKO ARAZOAK

Auzotarrek egurrezko zubi bat egin zuten duela hamabost bat urte, baina bostik ere pa-

satu dira obretako ibilgailu astunak eta nahiko hondatua dago. Urgentziaren bat gertatuz gero, egoera zaila dute Bidasoako bizilagunek: «Harat-honat segurtasunez joateko oinez ibiltzea bakarrik gelditzen zaigu, baina ezin dugu pentsu zaku bat garraiatu eta ezbeharren bat gertatzen bada...».



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak


ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

Ibarrola Mertzzeria

Haurrendako arropa

0-14 urte

Perrakia kalea 6 - Donostia
948450463



MALERREKA

Solasaldi batzuk antolatuz eman da ezagutzera Malerrekako Gazte Asanblada

Hizkuntza sexistari buruzko hitzaldia izanen da ortziraletan Doneztebeko liburutegian

PATXI IRIARTE

Azken ortziraletan Doneztebeko zineman burutzen ari diren solasaldi batzuekin eman da ezagutzera Malerrekako Gazte Asanblada. Urriaren 20an, homosexualitateari buzuko solasaldia eskaini zuen Euskal Herriko Gay Askapen Mugimendurako (EH-GAM) bi kidek. Urriaren 27an, drogei buruzko solasaldia eskaini zuen Hautsiko kide batek. Solasaldi ziklo hau akitzeko ortziral honetan, azaroak 3, arratsko 8etan, hizkuntza sexistari buruzko mahaingurua izanen da Doneztebeko zineman. Bertain, Hernaniko sexologa bat eta eskualdeko zenbait biztanlearen partehartzea espero da.

Iñaki Lareo, Malerrekako Gazte Asanbladako kideak adierazi duenez, «gai hauek nahiko tabuak dira gure inguru honetan eta horrexegatik interesgarriak izaten ahal zirela pentsatu dugu». Sola-



EHGAMeko bi kidek eskaini zuten solasaldiarekin hasi zen Malerrekako Gazte Asanbladak antolatutako hitzaldi zikloa. ttipi-ttapa TB

saldiak ez dira, ordea, antolatu dituzten ekitaldi bakarrak. «Ikastaro batzuk ere antolatu ditugu, masaia, sukaldaritza begetarianoa edo tinbal jotzea, adibidez».

Azkeneko bi hilabeteetan, hamabortz-hogei bat lagun biltzen dira Malerrekako Gazte Asanbladaren baitan, «Hemengo kultura, musika, kirola indartzea nahi dugu, gai bereziak

landu... Kulturalki eta sozialki hutsune dextente somatzen genituen inguru honetan eta horiek betetzeko helburua dugu». Momentuz hogei lagun horiek elkartzen badira ere, taldea nahi duen edonorentzat zabalik dagoela gogorazi du Iñaki Lareok: «Lan egiteko gogoekin dagoen edonor sartzen ahal da, ateak zabalik izanen ditu».

Bidasoa-Berroarango plantazioak bisitatu zituen Ingurugiro kontseilariak

1989ko abenduko sute handien ondorioz, Bidasoa-Berroarango oihan aumitz kaltetuak suertatu ziren. Ondorioz, 1990 eta 1995. urteen artean ingurugiro hori pinu, haritz, pago, urki, gereziando, intxaurren eta bertako

bertze zuhaitzekin oihanberritu zen, 682 milioi pezetako aurrekontuarekin. Zuhaitz ezberdinak landatzearen arrazoia biodibertsitatea zaintzea izan zen. Gainera, suteen eragina murrizteko baliagarria dira bertako zuhaitzak, zuhaitz hauen inguruak pinuarekin baino garbiagoak izan ohi direlako. Orduko kimu eta planta tikiak nola handitu diren ikusten izan zen Javier Marcotegui Nafarroako Gobernuako Ingurugiro, Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa kontseilaria urriaren 25ean. Elgorriagako Ugazta inguruan bildu zen inguru borretako alkateekin eta goiz osoan oihanak begiratzen izan ziren eta plantazioak ongi daukela ikusi zuten.

1989ko abenduko suteak 2.781 Hektarea hartu zituen: 1.314 Bidasoa-Berroarango; 183 Kokorikon; 683 Igantzin; 392 Etxalarren; 168 Beran; 78 Lesakan eta 13 Hektarea Arantzan.

Hariz
LENTZERA

Parrokia 11
Tfn: 45 01 12
DNEZTEBE

Udazken eta negurako kolekzio berriak

ttipi-ttapa internet

<http://www.gipuzkoa.com/topagunea/ttapi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

BEINTZAKO OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataraktak

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritisa, erreuma
- Artrosia, Lurbalgia
- Bihurdurak, etab...

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetes
- Asma
- Larru azalezko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

DONAMARIA

Jauregiko dorrea moldatzeko bigarren faseak 53 milioiko aurrekontua du

Nafarroako Gobernuak lanen kontratua onartu zuen urriaren 16ko bilkuran

TTIPI-TTAPA

1993an Nafarroako Gobernuak balio kulturalera ondasun izendatu zuen Donamariako Jauregi dorrea. Geroztik errestituzio lanak martxan paratu zituzten, jauregiari bere denborako edertasuna eta dotoretasuna itzultzeko asmotan. Urriaren 16an burututako gobernu bilkuran moldaketa lanen bigarren fasearen kontratua onartzea erabaki zuen gobernuak. Kontratuak 53.474.294 pezetako aurrekontua du nahiz eta finantziazio hau bi urtetako epeetan emanen den, aurrean eta heldu den urtean, on-



Artze auzoan dagoen Jauregi dorrea moldatzeko bigarren faseak 53 milioi terdiko aurrekontua izanen du.

Arbibokoa

doko basaketarekin: 30 milioi pezeta aurtengo

aurrekonturako eta ber- tze 23.474.294 pezetak

heldu den urterako. Artze auzoan, Txaruta

errekaren aitzinako pre- sa baten ondoan dagoen dorre honek balio ar- kitektoniko haundia gordetzen du, Malerre- kan ez baitago horrela- ko jauregi aunitzik. Lau pisuz osatua, Baztanen ere aurkitu ahal diren aspaldiko jauntxoan jau- regi famatuaren estiloa ja- rraituz bi zatitan bana- tua dago, lehenbiziko harrizko paretadun bi soilairuak eta gainera- ko biek, egurrezko pu- retekin. Garai batean be- heko alde ikulu edo behinahia bezala era- biltzen zen, bigarren pi- sua etxebizitza bezala eta azkenik, hirugarren eta laugarrenak ganba- ra eta gordailu bezala.

BERTIZARANA

Presoen alde errepidean kateatu ziren lau lagunak libre utzi ditu epaileak

Fiskalak karguak erretiratu egin zituen

TTIPI-TTAPA

Joan den urtean, Espainiako Konstituzio Egunean Narbarten egindako presoen aldeko ekitaldi batean N-121 errepidea mozte- gatik atxilotu zituen guardia zibilak Dani Aranaz, Frantsis Jorajuria, Eloi Jerez eta Ifaki Latasa gazteak.

Lau gazte hauek Iru- ñean desordena publi- koak sortzeagatik epai-

tu zituzten urriaren 19an eta epaileak aske utzi zituen. Fiskalak karguak erretiratu egin zituen, ekintza hauek ez baita- ra Kode Penalean deli- tutzat jotzen.

Lau gazteak, porla- nez betetako gasolina- bidoi haundi batzuetara kateatu ziren binaka eta errepidea itxi egin zuten. Guardia zibilak zakarki saiatu ziren gaz- teak errepidetik aterat- zen, baina ez zuten lor-

tu. Su-hiltzaileei abisa- tu eta hauek hautsi zi- tuzten kateak. Epaiket- an, fiskalaren galderei erantzuteari uko egin zioten lau gazteek eta bere ekintzak euskal presoen eskubideak al- darrikatzea zuela hel- buru adierazi zuten.

Bi guardia zibilek ere deklaratu zuten Iruñean. Lau gazteek aginduak bete zituztela eta ez zu- tela aurka egin adiera- zi zuten.

Ingurugiro heziketari buruzko trebakuntza mintegia

Azarotik heldu den urteko ekainan bitarte, hi- labetean behin eginen den ingurugiro hezike- tari buruzko trebakun- tza mintegiko lehen saioa azaroaren 11n egi- nen da Bertizko Inter- pretazio zentroan. Goi- zeko 9etatik 2etara «Ingurugiroa Nafarroa- gaia landuko da, Nafa-

rrako Gobernuaren Ingurugiro Departamenduaren eskutik.

Mintegi honek Baz- tan, Malerreka eta Bi- dasoa aldean egiten den ingurugiro kudeaketari eta Bertizko Parkeak ga- ratzen dituen Ingurugiro Heziketa jardueri bu- ruz informatzea du le- hen helburua. Mintegian parte hartuko dutenak trebatu nahi dira, Ingu- rugiro Heziketa pro- gramak gara ditzaten.

Aurtizko San Martin bestak azaroaren 10etik 13ra

Herritarren Eguneko bazkarian Irazu eta Peñagarikano izanen dira

Ostirala, azaroak 10
Bezpera

8etan suziria bistulariek alaiturik. **9etan** zopa jatea Aurtizko Ostatuan. **12,30etatik aurrera** dantzaldia JALISCO BAND-ekin.

Larunbata, azaroak 11
10etan argisoinua bistularien eskutik. **12etan** Meza Nagusia. Ondoren pilota partiduak. **4,30etan** txotxongiloen antzerkia frontoian, Mozorro Berri egitarauaren barnean. Txirrista taldearen «Basoko sasietan gose». **4,30etan** plater tiraketa. **6etan** haurren jokuak eta txokolatada. Ondoren dantzaldia ALTZIBER eta ESTITXU trikitilarien eskutik. **12,30etatik aurrera** dantzaldia JALISCO BAND-en eskutik.

Igandea, azaroak 12
10etan argisoinua bistularien eskutik. **1etan** aizkora apostua. **5etan** triki-



Haurrendako egun berezia izanen da larunbatekoa: Txotxongiloen emanaldiaren ondotik, jokuak eta txokolatada izanen dute.

Argazkia: Añara Midegiak irria

tixa jaialdia. Ondoren dantzaldia MINDEGIA ANAJARREBA trikiti taldearekin. **Astlehena, azaroak 13**
Herritarren Eguna

10etan argisoinua bistularien eskutik. **10,30etan** mus txapelketa. **1etan** herriko nesken arteko proba konbinatuak. **2,30etan** he-

rri bazkaria Irazu eta Peñagarikano bertsolariekin. **Arratsaldean eta gauzean** dantzaldia JOXE ANGEL akordiolariarekin.

Udal Plana idazteko lehiaketa deia egin du Herriko Etxeak

Donamariako Udalak plan municipal idazteko lanak lehiaketa bidez emanen ditu eta horretarako lehiaketa deialdi publikoa egin du. Eskaintza ekonomikoasei milioi pezetatik beheitikoa izan beharko du eta proposamenak azaroaren 6ko arratsaldeko bi orduak baino lehen aurkeztu behar dira.

Duguna fanfarrea igandeko meza ondotik

Nafarroako Gobernuak antolatutako Udazkeneko Biraren egitarauaren barnean igande honetan, azaroak 5, Duguna fanfarrea ariko da Donamarian, goizeko 11,30etako meza ondotik.

Leurtzako bidea eta aparkalekua moldatzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak

Haserako aurrekontua 26 milioi pezetakoa da

TTIPI-TTAPA

Leurtzako urtegiaren doan bidean 3.100 metro zola berritzeko eta urtegi aparkalekua txukuntzeko lanak egiteko lehiaketa deialdia lizatu du Urrozko Udalak. 26.135.245 pezetakoa (BEZ barne) izanen da gehienezko aurrekontua. Beriz, proposamenak kopuru ho-

rretatik beheitikoa izan beharko dute. Proposamenak azaroaren 6ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Urrozko udal bulegoan.

Udazkeneko Bira aliegatu da

Udazkeneko Biraren barnean, Lesakako Tantirumairu dantza taldearen emanaldia izan da igande honetan.



GOIZUETA

Matrikula kopurua mantendu du herriko Musika Eskolak

Bestalde, obrak dirauten bitartean kontsulta zaharrearan egonen dira udal bulegoak

ESTEBAN AROTZENA

Iazkoaren antzeko matrikulazio kopurua izanen du Udal Musika Eskolak, orain dela hilabete bat hasitako ikasturte honetan, 89 ikasle hain zuzen ere.

Arloz arlo eta tresnaz tresna aipatuz esan, kitarran 16 ikasle direla izena emandakoak; perkusioan 10; trikiti-xian 7; txistuan 4; pianoan 6; eta kordionan 3. Hizkuntz musikalan berriz, 58 lagun daude, hauetatik 15 Lehen Ziklokoak direlarik (4, 5 eta 6 urtekoak).

Aralar Musika Eskola hau zortzi Udaletxe ezberdinek babesten dute, hauen artean, jakina, Goizuetakoa. Gure he-



Aurten ere ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute Musika Eskolako ikasleek.

rriari bezala, besteetan ere matrikulazioa mantendu egin da, eta 2000-2001 ikasturtea 411 ikaslerekin eta 608 matrikulatuekin hasi du. Laster beteko du gainera bere 30. urteurrena.

Udal bulegoa medikuaren etxe zaharrearan

Aurreko alean esan genuen bezala, hurrengo asteetan husitzekoak dira Herriko Etxeko berritze lanak. Bertako

administrazioaren funtzionamendua ezinezkoa egingen duenez horrek, bulego zerbitzuak medikuaren kontsulta zahararrera eramanez dituzte.

Udaletxea aipatu de-

nez, esan beharrezkoa da, azaroaren 27a arteko epea ireki dutela herri-tarrek landa eta hiri lurren (Rústica y urbana) gaineko zergak, eta ura eta zaborren tasak ordain ditzaten.

ARESO

Ur zikina hedatu da Pagozelaiko zerbitzugunetik

Matxain errekatik Astomelaraino somatu da

JUANA MARI SAIZAR

Orain dela hilabete butzuk Matxain errekatik hasi eta Astomelaraino ur zikin asko somatu zen. Begiratzen hasi eta konturatu ziren autobideko Pagozelai zerbitzugunetik ailegatzeko zela gorotza.

Udalak, jakinaren gainean jarri eta erreklamazioa egin ondoren, inongo kasurik egin ez dutenez, salaketa jarri du Ingurugiro Departamenduan. Polizia Foralaren patruila ekologiko bat bidali zuten begiratzeko. Orain, euri asko egin duela eta,



Euri asko egin duela eta, kutsadura ez da orain hain nabarmena.

kutsadura ez omen da hain nabarmena.

Eskolako umeak Pagoetara joan dira

Eskolako umeek Pagoeta purkera joan ziren aurtengo ikasturte-

ko lehen irteeran. Udazkena, erleak eta oreinak lantzen ari dira eta hurbiletik ikusteko parada izan zuten. Basurdeen oinatzak eta haizeak botatuko hainbat enbor ere ikasgai izan zituzten.

Aerobic ikastaroa antolatu da

Aerobic ikastaroa antolatu du Guraso Elkar-teak. Horretarako jende kopuru bat behar da. Beraz, ohiko tokietan eman behar da izena.

Hirigintza Plana behin-behingoan onartu zen udal batzarrean

Hirurehun eta sei etxebizitza berri egiteko aukera aurrikusten da

JOSEBA AZPIROZ

Udalak urriaren 6an egindako batzarrean, Hirigintza plan berria behin-behingoan onartu zuen. Plan honetan, hurrengo urteetako herriaren garapen urbanistikoa zehazten da: eremu urbano eta urbanizagarri berriak, babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua, eremu industrialak, errepide berriak, eraikuntzarako araudia eta honelakoak zehazten dira; hau da zer, non eta nola eraiki ahal izanen den. Guztira 306 etxe berri egiteko aukera aurrikusten da. Horietatik 124 Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta beste 182 libreak. Lur ez urbanizagarrian ere etxeak egiteko aukera mantentzen da baina baldintzak aldatzen dira.

Araudia aztertu eta alegazioak egiteko hilabeteko epea dago eta



Hirigintza plan berriaren arabera 306 etxe berri egiten ahal dira Leitzaan, horietatik 124 babes ofizialekoak eta 182 libreak. Artelbokoak

txostena Udaletxeko Batzar-aretoan dago jendaurrean, bulego orduduan.

Herri epaimahaikideak

Herri epaimahaikideak izan daitezkeen

pertsonen zerrendak berritzeko egin berri duten zozketan, sei leitzar atera dira: Antonio Alkanaz Goienetxe, Jose Mari Baleztena Monaco, Pedro Jose Fernandez Larrea, Gregorio Leitza Sagastibeltza,

Xabier Ruiz Zestau eta Jose Fermin Zabaleta Zestau. Nafarroan 2001. eta 2002. urteetan Herri epaimahaiarekin egiten diren juizio edo epai-kerretan epai-mahaiko kideak suertatu daitezke herritar hauek.

flash

Azienda katastroa

Aziendariak daukanak, Abeltzantzaren Aberastasuna Kontatzeko Orria (Katastroa) Udaletxeko bulegoetan betetzea beharrik dago, azaroaren 2tik 30a bitarte.

Euskal preso eskubideak

Estatuaren administrazioak, Euskal preso eskubideen alde Senideak elkarteak aurkeztu eta Udalak apirilko batzarrean onartu zuen akordioaren aurkako errekurtsioa jarri du.

Lizarra-Garazi

Udalak, EH, EA eta UPN taldeetako zinegotzien botuekin, Leitzaiko Lizarra-Garazi Txiki taldeak Akordioaren eta Euskal Herriko egoera politikoaren inguruan egindako eztabaidaren ondorioz argitaratu dituen hausnarketei bere atxikimendua eman zien aho batez, urriaren 6an egindako aparteko batzarrean.

Larraun, Ultzama eta Leitzaldeko herrien premiak azaldu zizkieten alkateek Nafarroako Gobernuari

Larraun, Ultzama eta Leitzaldeko alkateak Nafarroako Gobernuarekin bildu ziren urriaren 16an Lekunberrin, eta herria hauek dituzten premiak jakinarazi zituzten. Leitzaldeko, Leitzako Tomas Azpiroz, Aresoko Josefa Antonia Onsalo eta Goizueta Pilar Untxalo izan ziren bileran. Aresoko alkatesak, oihangintza arautzeko

plan baten beharra azpimarratu zuen. Goizueta alkateak industrialdea eskatu zion Gobernuari eta Artikutzako baliabideak aprobetxatu ahal izateko aterabidea. Leitzako alkateak zonaldeko garapen sozioekonomikorako plana eta industriarako 55.000 metro koadroren egokitzeta eskatu zuen, 400 milioi pezetako inbertsioarekin.



Eskualdeko alkateak eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak Plazaolako geltoki zaharrean bildu ziren Lekunberrin.

Bideak hobetzeko lanak Arkaitza enpresak egingen ditu

92 milioi terdiko aurrekontua aurkeztu du Berako lantegiak

TTPI-TTAPA

Joan den urteko abenduan egin gabe gelditu ziren bide batzuk hobetzeko lanak. Zehazki, Erdikoborda, Dorrea, Komainekomendi, Apaioa, Urrasu-Malkorenea eta Altzako bideak gelditu ziren moldatu gabe. Bide horiek hobetzeko lanak eman ditu orain Balleko Udalak. Berako Arkaitza enpresak egingen ditu, 92.486.858 pezetaren truke. Lan hau Hirurteko Azpiegitura Planaren barnean sartua dago.

Bertzalde, Macla Ingenieria Civil, S.L. enpresak egingen ditu Berroeta, Arizkun eta Elizondoko ur-sarearen berritze eta Berroetako karriken zolaberritze lanen proiektuaren idazketa eta zuzendaritza teknikoak. 10.933.000 pezetako aurrekontua dute lan hauek eta 2000. urteko azpiegitura planean sartuak daude.

500 MILIOI INBERTITUKO DIRA HURRENGO HIRU URTEAN

Bertzalde, heldu di-



Oronozko bideturtearen itxura guziz aldatuko da saihesbidearen lanen ondotik.

ren hiru urteetan Nafarroako Gobernuak Herriaren Departamentuak 500 milioi inbertituko omen ditu Baztango errepideak moldatzen. Bertzeak bertze, N-121-B errepidetik Amaiur eta Azpilkuetarako sarrerak moldatuko dira; Mugairitik Otsondorako bidea moldatuko da (300 milioi-ko aurrekontua); Orabidea eta Urdazubi arteko errepidearen lehen zatia eta Irurita-Lekaroz

errepidea egokituko dira; Belatetik jaustera-koan, Almandoz eta Berroetako irteeretan, Berroeta, Ziga, Aniz eta Almandoz herrien berri emanen da seinale-tan eta Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita, Elizondo eta Elbeteko zehar-bideak moldatuko dira.

ORONOZKO SAIHESBIDEKO LANAK HELDU DEN URTEAN EMANEN DIRA

Oronoz-Mugairiko

saihesbidearen lanak heldu den urtean adjudikatuko dira eta 2003. urterako akituak izatea espero da. Saihesbide honek 1.680 metroko luzera izanen du eta 1.199 milioi pezetako aurrekontua izanen du.

Florentino Goñi Oronoz-Mugairiko alkatea gustora dago, errepide berriaren trazatuak herritarren eskaerak kontuan hartu dituelako, «%95 batean». Alkateak dioenez, «le-

hengo trazatua herritik 200 metrora pasatzen zen, herriko belagiegiaren erditik. Orain berriz, kanposainduren gibeletik pasatzen da eta 420 metroko tanel baten bitartez Askape ingurura arazten da. Honela, supertokiak eta kurbak saihesten dira». Zati eta Oronoz arteko errepide berria egitean ur-sarea kontuan hartzea eskatu du orain Florentino Goñik.

flash

Arma eta ibilgailuen Azterketa Medikoen Zentroak

ordutegi berria izanen du azarotik aurrera Elizondoko Ordutegi berria gizeko Setatik Zenturiz izanen da.

Azpilkuetako pinuak Ehizari elkartearantz

Azpilkuetako herriaren izenean dagoen Betarte inguruko herri lurralde pinuak 550.000 pezetaren truke saldu zaizkie Baztango ehizalari eta urratsale elkarteari. Hori erabaki zuen Azpilkuetako batzarreko azken bilkuran.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ☎ 948 580939
ELIZONDO

UDAZKENEKO ARROPAK

Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntuak,
kamisetak, blusak, oihalak...

**ESKULANGINTZAKO
MATERIALAK**



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adanso

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonan • ☎ 948 580 562 IRURITA



BAZTAN

Kirikoketa Eguna ospatuko da larunbat honetan Elizondon

Jo ala jo taldeak antolatu du bigarren urtez besta egun hau

TTIPI-TTAPA

Gan den urtean bezalaxe, aurten ere Kirikoketa Eguna antolatu du Jo ala Jo taldeak, Erratzuko Kultur Elkartea, Larralde sagardotegia, Ordoki likoreak eta Ilargi, Intza, Pirrin, Zubipunta eta Taska osatuen laguntzarekin. Larunbat honetan, azaroak 4, egingen da besta egun hau. Goizeko 10etan Kirikoketa joko dute Jo ala Jo taldeko kideek Larralde sagardotegian, Erratzun, Arizkun eta Amairren.

Bi orduetan Arizkongo Gamioxaharreko dolarea bisitatuko da eta bertan sagardoa nola egiten zen eta zein tresnak erabiltzen ziren erakusten duen murala ere izanen da ikusgai. Arratsaldeko 5etan Elizondoko plazan sagar zanpatzea egingen da, txistulari, dantzari, albokari eta Arano, Leitza eta Baigorriko txalapartarien laguntzarekin. Gainera, zanpatzearen ondorioz lortzen den zukua edateko banatuko



Txileko baztandarrak Munduko museko txapeldunak

Cosme Sanz eta Eusebio Gamio baztandarrak Munduko XXIII. mus txapelketa irabazi dute aurten Donostian, Txile ordezkatzuz. Cosme Sanz Erronkariko Burgi herrian sortua da eta Azpilkuetako Mittoeako Isabel Urrutiarekin esposatua dago. Elbeten duten etxera etortzen dira urtero. Duela 36 urte gan zen Txilerat, okin gisara lan egitera. Eusebio Gamio Arizkongo Iñarbil auzoko Larrasterrekoborda baserrikoa da. Duela 38 urte ailegatu zen Txilerat eta hau ere okina da. Mexikoko ordezkari izan ere bi baztandarrek osatu zuten Munduko txapelketan: Zigako Eustaquio Etxenikek eta Arizkongo Javier Etxenikek. Honek ezin izan zuen jokatu eta Angel Ponce arizkundarrak hartu zuen bere lekua. Argazkia: Ondikol

da eta artopilak izanen dira salgai.

Gaueko 9etan, Abastos plazan kontzertu-afaria egingen da. Txartelak 1.500 pezetatan salgai duude, laguntzaile diren ostatueta.

LEHENGO TRADIZIOAK BERRESKURATU

Xabier Torres, Oian-tos Garde, Patxi Larralde, Iñaki Obregozo eta Txomin Petrikorenak osatzen dute, bertze laguntzaile batzuekin, Jo

ala Jo kirikoketa taldea. Sagardoa egiterakoan erabiltzen zen tresna hau jotzeaz gain, «galdia dagoen lehenko tradizioak berreskuratu eta kultura ezagutu nahi dugu» diote taldekideek.

Personaiak

Amaia Rodriguez Zaldia Euskara teknikari berria

Azkeneko bost urteetan Udaleko Euskara Zerbitzuan teknikari izan den Paula Kasaresek lan ezadentzia eskatu eta urte batzuek Euskal Herririk kanpo ariko da, gogoko bertze jardueretan. Idatzi baten bitartez, bost urte hauetan emandako laguntza eskertu du Paulak. «Laguntza hori gabe ezinezkoa izanen balitzaidan nire lana betetzea». Hemendik aitzin Amaia Rodriguez Zaldia izanen da Udaleko Euskara Zerbitzuan teknikari lanetan. Hernaniarra sortzez, «Baztango euskararen erabilera areagotzea» izanen da bere helburu nagusia. Modu berean, haurrek eta gazteek eskolaz kanpo ere euskara erabiltzeko ekintzak antolatzeke asmoa du.



Amaia Rguez Zaldia

ARGIBEL OPTIKA
Orain Donezteben ere
☎ 948 581 391
Santzi 02 - ELIZONDO
☎ 948 450 345
Iturriz 7 - DONEZTEBE
Aukera zabala
• Anteojoak
• Lentillak
• Audifonoak
• Errebisioak

BAZTAN
ALTZARIAK zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
aseguru orokorrak
☎ 948 581468
948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 3
Ameztialde 3B-ELBETE

URDAZUBI ZUGARRAMURDI

Gantxeneko Ixabel eta Salaberriko Juan Feliperen Urrezko Ezteiak

Urriaren 7an Alkerdiko San Esteban kaperan egin zuten meza

MARGARI ETA KORO

Sortzez Urdazubiarak eta orain Senpereko Barberaenean bizi diren Ixabel Gantxenekoa eta Juan Felipe Salaberrikoak inailaren 30ean beren Urrezko Ezteiak bete zituzten. Horrelakoa ospatzeko urriaren 7an Alkerdiko San Esteban kaperan egin zuten meza (ilusioa egiten zieten hor ospatzea, Ixabelen aita izan baitzen kaperan hunen egile bat) eta ondotik Arnuan bazkaria. Bikote hunen fruituak lau seme-alaba eta sei hiloba dira. Larrekok idatzitako bertsu batean ageri den bezala: *Ixabel-Juan Felipe gogoesmen zueri, bai berdin Paxkal, Patxi Koke ta Pellori, Pantxika, Jon, Bastiao, Filipe, Carole, Mari, Aitamak, lau haurride eta sei haur tiki.*



Eskuinean, Ixabel eta Juan Felipe esposatu ziren eguna eta ezkerrean, berrogeita hamar urte beranduago Alkerdiko San Esteban kaperan, Urrezko Ezteiak ospatzen.

San Fermin korala Zugarramurdiko elizan izanen da azaroaren 25ean

Nafarroako Gobernutik antolatzen den

Urdazkeneko Birako egitarauaren ekitaldien barnean, heldu den azaroaren 25ean (larunbata) Iruñeko San Fermin Koralak Zugarramurdi-

ko elizan kantatuko du arratsaldeko 7,30etan. Maila honetako abesbatzak ez dira auzintan etortzen hunat, beraz aprobetxatu aukera!

Posteoaia

Kilo eta ehun gramoko onddoa

Ikaburua etxeko Juan Luis Sarratea Arotzarena urdazubiarak 1,100 kiloko onddo beltza harrapatu zuen duela pare bat aste. Onddo eder hau bakarrik omen zegoen, baina itzuli berean hiru kilo bildu zituen Juan Luisek: «Zoko batean zegoen, hostoek ia erabat estalia. Zapela ikusten zitzaien bakar-bakarrik. Seguraski horregatik haunditu izanen da horrenbertze». Juan Luisek onartu duenez, «afizio ikaragarria» du onddotarako eta, noski, ez du erran non harrapatu zuen ale hau: «Batzango xokoren batean...».



Juan Luis SARRATEA

JATETXEA
 ☎ 948 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO

Galarza

**MENDI
 OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 948 580313
 ELIZONDO



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa - IRURITA - ☎ 948 580 645

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
 • Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 • Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 • Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 • Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 • Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein giako gestioak

Santiago 15 - Tinea eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

SARA

Zazpiak Bat dantza taldearen bulegoan aldaketak izan dira

Basurdeen errugbi taldeak emaitza onak eskuratu ditu

ANA MARI ETA FRED

Urriaren 20an Zazpiak Bat dantza taldearen biltzar nagusia bururatu zen Gazteen Etxean. Denetara 40 lagun bildu ziren, aipatu behar da buraso gutti agertu zirela. Ekonomikoki diru konduak sarokak dira momentu honetan. Udako ekitaldiak arrakastatsuak izan dira, baina erabaki da heldu den urtean kanpoko taldeekin emanaldirik ez egitea. Bildutakoen kezka bakarra, talde handian jende eskasia.

BULEGOAN ALDAKETAK

Jeannot Elizagoienek lehendakari postua utzi du eta ohorezko lehendakaria izendatu dute. Elizagoienen ordez Odile Ayez izanen da Zazpiak Bateko lehendakari berria eta Dominique Ixuribehere lehendakariordea. Dominique Roudier-ek diruzaintzaren ardura hartuko du Jean Michel Jauregiren ordez, nahiz eta azken honek laguntzaile bezala segituko duen. Idazkari postuan



Basurdeek Azkainen jokatu dute igande huntan.

ez da aldaketarik izanen, beraz Sophie Garbisok segituko du. Bertzalde, aipatu behar da elkarrekin proposatzen dituen dantza kurtsoak hasiak direla dagoeneko. Helduen mailan, dozena bat lagun elkartzen dira ortziralero, 9etatik 10etara.

Urtean zehar Mutxiakoak, Fandango, Axuri Beltza eta Larraindantza ikasiko dituzte, bertzeak bertze. Haurrek larunbat goizeko 9,30etan hartzen dituzte kurtsoak. Txistu kurtsoak, be-

rriz, asteazkenetan arratsaldeko 2etan Zazpiak Batek duen lokalean ematen dira.

Oraindik baldin bada interesaturik, deizala 0559542278 edo 0559595756 zenbakietara.

Errugbi taldeak Azkainen jokatu dute igande huntan

Azken aldian, herriko errugbi taldeak emaitza onak ateratzen ditu, eta lerro hauek idazterakoan sailkapeneko hi-

rugarren postuan dugu. Alabainan, lehen taldeak 25-17 irabazi dio St Pierre du Mont-i eta 13-3 Lit et Mix-eri. Bere aldetik bigarren taldeak hastapen gogorrak izan baldin baditu ere, emaitza ohoragarriak erdietsi ditu azken neurketetan: 15-0 irabazi St Pierre du Mont-en aurka, eta 12-9 Lit eta Mixen kontra. Emaitza on horien sariztatzeke zerrikume jatea antolatua zen urriaren 22an, eta karia hortarat arropa eta zaku berriak es-

flash

- ◆ **Gripearen kontrako xertoa** azaroaren 8an egingen da Herriko Etxean, goizeko 9etarik goiti. Oraino jende aintz hiltzen da eritasun horren ondorioz, eta beraz 60 urte baino gehiagoko sarrata Herriko Etxera joatera gomitatua dira. Segurantzia Sozialak eman agiriarekin eta erremedioarekin. Laffite medikua da xerta-tzeetaz arduratuko.
- ◆ **Herriko Etxeko edantegia** etsia izanen da azilaren 10etik abenduaren 5a arte.

kainiak izan zaizkiote talde nagusiko, bigarren taldeko eta errugbi eskolako jokalariz guzietan. Urriaren 29an basurdeek arropa berri horien lehen aldikotz soinean eramateko parada izan zuten Sault herrian. Azaroaren 5ean pausako eguna izanen dute eta ederki etorriko zaioite, ondoko asteko partida Azkainen jokatu baitute. Joaneko partidatarrak irabazi zuten... Errebantxa borrokatu baten mentura beraz!

SAIOA
ILEAPAINDEGI
MISTOA
IBARDINen

Benta Biok-en,
Benta Mirentxuren
ondoan

© 0034948630424

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176



HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

MARIAN ETA VERONIQUE
64310 SARA • Tel. 05 59 54 25 19

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • © 948453060

SOULE
Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

EZKONTZAK

Begoña Jaurena Gaztanbide eta **Fernando Dagerre Goñi**, Zugarramurdi eta Elizondokoa, urriaren 14an.

Olartia Indaburu Azkarraga eta **Antonio Iribarren Garbalena**, Zugarramurdi eta Lekarozkoa, urriaren 21ean.

Jose Juan Zubieta Portu eta **Amalia Iriarte Retegi**, Lesaka eta Berakoa, urriaren 7an.

Miguel Goñi Lasarte eta **Maria Belen Otamendi Aranibar**, Berakoak, urriaren 12an.

Jose Luis Arotzena Gamio eta **Maidar Ibarregi Belarra**, Doneztebe eta Irungoa, urriaren 14an.

Carlos Joaquin Sarratea Goienetxe eta **Elisabet Etxekolonea Loiarte**, Ziga eta Zubietakoa, urriaren 21ean.

JAIOTZAK

Eneko Sanzberro Telletxea, Etxalarkoa, ekainaren 20an.

Paula Ustarroz Altuarte, Oronoz-Mugairikoa, urriaren 8an.

Oier Cordoba Elizalde, Elizondokoa, urriaren 15ean.

Carlos Ostiz Olaia, Doneztebekoa, urriaren 2an.

Andres Ostiz Olaia, Doneztebekoa, urriaren 2an.

Melanie Rivas Salazar, Doneztebekoa, urriaren 4an.

Laure Albizu, Sarakoa, buruilararen 20an.

HERIOTZAK

Miguel Jose Gabriel Gaztelu Perotxena, Elizondokoa, urriaren 8an, 74 urte.

Benito Arrizabalaga Inda, Elizondon, urriaren 8an, 73 urte.

Gabriel Oteiza Maisterrena, Zigakoa Iruritan, urriaren 14an, 73 urte.

Micaela Goñi Apeztegia, Iruridakoa, 86 urte, urriaren 18an.

Concepción Bikondoa Inda, Urdazubikoa, urriaren 17an, 93 urte.

Manuel Aranibar Diaz, Berakoa, urriaren 12an, 82 urte.

Gumersindo Gorosabel Azkarate, Nartartekoa, urriaren 15ean, 68 urte.

Pantxo Lastra, Sarakoa, urriaren 8an, 67 urte.



Mª Angeles IÑARREA IBARRA

1. URTEMUGA (99-XI-14)

Ez negarik egin. Jaunatengana nos. Zenuan esperatuko dizuet. Ni hil naiz, baina nire maitasuna ez da hiltzen. Zenuan maitatuko zaituztet. Lurrean maitatu zaituztedan bezala.

Familiaren aingeru ikustezina izanen naiz. Jaungoikoak zuegarik eskatzen dudana emango dit.

FAMILIA.

Eratsun, 2000ko Azaroa



Juanita INDA MARITORENA

Gerardo Irungarayren alarguna

Neurri gabea irudi arren bizi potaren indarrak gure artetik eramán zaitu bat bateko ezbeharrak lehen hainbertze babestu gaitzan zuk zenuen irriparrak irripar hoti gau oskarbian argi bezate izarrak.

Esker mile gure ondoan egon zaten guziet. Makitenea (Amaiur), 2000ko Azaroan



Miguel GAZTELU PEROTXENA

Jose Miguel Gaztelu presoaren aita

Miguel Gaztelu Perotxena zenaren familiari gure doluminik sentikorrena igortzen diogu.



BERGARAKO SENIDEAK.

Nafarroako buruz buruko erremonte txapelketa jokoan da Euskalen

- Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizaso, txapela eta Fiat autoaren bila ari dira
- Bi doneztebarrekin batera, Eizagirre eta Zeberio II lehiatuko dira

TTIPI-TTAPA

Urriaren 17an aurkeztu zen lehen aldiz jokatuko den Nafarroako buruz buruko erremonte txapelketa. Gaur egungo lau espezialista onenekin antolatu da eta Euskalen jokatuko dira partidu guztiak. Bingo Londres txapelketa borts aldiz irabazi duen Koteto Ezkurra eta aurtengo txapelduna izan den Iñaki Lizaso doneztebarrekin batera, hiru aldiz finalista izan den Jon Eizagirre eta aurtengo txapelketan ustegabekoa eman duen Patxi Zeberio ari dira lehian. Enpresak jarri dituen txapela eta oroi-garrietaz gain, Burlatako Fiat Medansa etxeak irabazlearentzat Fiat Tipo autoa jarri du.

Joan den asteartean abiatu zen txapelketa Euskalen. Ezkurak 35-15 irabazi zion Eizagirreri lehen partiduan. Lizasok azarorearen lein jokatu du lehendabiziko partida Zeberio bigarrenaren kontra. Ligaxka sistemaz jokatuko da, guztiak guztiak kontra eta ligaxka honetako bi onenek jokatuko dute finala San Frantzisko egunean. Dena den, Osasuna eta Real Madrilek egun horietan jokatuko dute ligako partidua eta, horren arabera alda daiteke finalaren eguna.



Bakarkako bost txapel irabazi dituen Ezkurra eta Lizaso, gaur egungo txapelduna, faborito izanen dira.

BI DONEZTEBARRAK GOGOekin
Koteto Ezkurra eta Iñaki Lizasok gogoekin eta ilusioz ekin diote

txapelketa berri honi. Txapelaz gain, auto bat dago jokoan eta hori ez da ohikoa erremontean. Baina kirol lehia hori baino handiagoa izanen da. Lizasok Bingo Londres txapelketa irabazi du aurtun, finalean Ezkurri irabazi ondok. Nafarroa Oinezen alde jokatutako errebantxan Ezkurak irabazi zuen. Beraz, hirugarren norgehiagoka honen zain daude doneztebar guztiak. Koteto sa-



soi puntu onean dago eta moralki ere indartsu dago, irabazteko gogoeekin. Baina berak adierazi duenez, bertze arerioak ere kontuan hartzeok dira: «Eizagirre hiru finaletan egon da eta teknikoki kontuan hartzeko erremontelaria da eta Lizaso txapelduna da». Lizasoren ustez, Koteto izanen da faborito: «Banaka nahiz binaka bera da nagusi. Bertzeak ustegabea ematera aterako gara».

Mitxel Aginaga narbartarrak Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa irabazi du

Calatayudeko Antonio Garcia Moreno nagusitu zen Pilarika Egunean Gartzainen jokatutako Mendi Duatloi txapelketan. Bigarrena, Narbarteko Mitxel Aginaga izan zen, nahiz eta bizikletaren kanbinoa hautsi zuen. Hirugarren postua Iban Altube ofatiarrarentzat izan zen. Berrogeita zazpi Partehartzaileek 5 kilometro lasterka, 16 mendi bizikletan eta azkeneko bi terdiak

laisterka egin behar izan zituzten.

Erran bezala, Mitxel Aginaga, 29 urteko kirolari narbartarrak bigarren postua erdietsi zuen, eta gisa honetara, Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa irabazi du. Azkeneko lau urteotan Mitxel Aginagarentzat izan da Nafarroako txapelketa, 1997an irabazi zuenetik, inor ez baita gai izan txapel hori berari kentzeko.



- ◆ **Aimar Olaizola**
Lau terdiko txapelketatik kanpo gelditu da Olaizola II, lehendabiziko partidua 17 eta 22 galdu egin baitzuen Capellanen kontra. Eurgiren kontra zen hurrengo kanporaketa, baina goizuetarrak ez zuen bere maila erakutsi eta ezin izan du partidu hori jokatu.
- ◆ **Abel Barriola**
Lau terdiko txapelketa honetan huts egin ez duena leitzarra da. Herrian bertan jokatu ditu lehendabiziko bi kanporaketak eta Rai (22-14) eta Tirapu (22-19) kanpoan utzi ditu. Espezialidade honetako espezialista haundia egiten ari da poliki-poliki.
- ◆ **Mikel Goni**
la berrogei egunez kantxetatik kanpo egon ondok, gogo berritua eta sei kilo gutiagorekin itzuli da pilotalekulara. Binakako lehendabiziko partidua galdu egin zuen Bernarekin, Etxaniz eta Elkororen kontra, baina bertze itxura eta seriotasun bat nabaritu zitzaizkion. Elizondoko Feria egunean Asier Olai-zolaren kontra jokatu behar zuen lau terdiko txapelketako partida.

DATUAK

1 Patxi Vila beratarak 25 urte bete zituen urriaren 11n. Urtebetetzeko opari ezin hobea jaso zuen, profesionaletako Banesto taldeak bi urterako fitxatuko zuela segurtatu baitzion.

2 Etxabarri zuzendariak hiru itzuli handietako bat eginen duela erran dio: «Espainiako Vuelta edo Italiako Giroa izanen direla suposatzen dut».

3 Joan den neguan, Espainiako eta Europako Neguko Triatloi txapelketetan nabarmendu zen Vila: «Nire lana txirrindularitza dela jakinik, bertze modu batera hartu beharko dut orain denboraldia».

TESTUA:
AITOR AROTZENA
ARGAZKIA:
ASIER GOGORTZA

Patxi VILA Berako txirrindularia

“Nik egindako lana estimatzen duela erakutsi du Banestok”

Aurten profesionaletarako pausua ematen ez bazuen, Portugal edo Italia aldean proba egiteko aukera aztertua zuen Patxi Vila txirrindulari beratarak. «Hemen, Euskaltel taldean ez bazen hagitz zaila zegoen. Horregatik, Jose Mari Ezeiza nere erre-presentantea Italian begiratzeko hasia zen. Italiakoa ateratzen ez bazen, Portugalera jozteko asmoa nuen». Azkenean, ordea, Banesto taldeak eman dio profesionaletara salto egiteko modua ustekabea: «Ez nuen inondik espero, Banesto afizionatueta bere taldea duelako. Talde horretatik pasatu gabe Banesto profesionalera zuzenean igo den hirugarren txirrindularia naiz. Gainera, ez naiz ni beraiengana joan, Banesto taldeak jo du niregana eta hori pozgarria da, zuk egindako lana estimatzen eta kontuan hartzen dutela erakusten baitu».

Afizionatueta azken denboraldi ona egin du Patxi Vilak Caja Rural taldearekin:

«Ekaina arte ongi ibili nintzen, karrera pare bat irabazi nituen eta hagitz gustora ari nintzen. Itzuli handietan aldi-z joan den urtean Nafarroako Itzulian eta Bizkaiako Biran egindako postuengatik, nahiko kontrolatua nengoen. Nafarroako Itzulian, eurek irabaztera baino nik ez irabaztera jokatu zuten zuzendari batzuk. Uztailan atsedena hartu nuen eta morala nahiko baxua nuen. Denboraldia aitzinera zoaiela ikusten nuen eta egun bateko karreratan ongi ibili arren, itzuli haundiak irabazteko zerbait falta nuela iruditzen zizaidan».

«BORTZ URTEKO LANA AZKEN HILABETE TERDIAN JOKATU NUEN»

Uztailko atsedena diaren ondotik, bere etorkizuna denboraldi-ko azken txanpan jokatu behar zuela pentsatu zuen Patxi. «Hilabete terdian bortz urte jokoa nirela eta eutsi behar nuela erran nion nere buruari. Hor goian lekua nuela erakutsi behar nuen eta hiru aste-

1 «Mundu berri bat da eta mila gauza daude ikasteko. Harretarako gogo aunitzekin nago. Profesionala izaten saiatuko naiz, horrek erran nahi duen guziarekin.»



«Afizionatueta bere taldetik pasatu gabe Banestok fitxatzen duen hirugarren txirrindularia naiz».

tan nire bizitzako entrenamendurik gogorrenak egin nituen eta Zamorara moralez eta sasoi puntuz ongi joan nintzen eta itzulia irabazi nuen. Gero Palentziara joan nintzen. Han presio gehiago nuen, faboritua nintzelako, itzulia gogorragoa zen, maila handiagokoa, baina lasai atera nintzen. Han berriz irabaztea suertatu zizaidan eta lasai gelditu nintzen nire buruarekin: faborito bezala ateri eta horri erantzuteak zenbait gauza erran nahi ditu».

Orain Patxi Vilak le-

kua hartu nahi du Perico Delgado, Miguel Indurain edo Alex Zulle bezalako txirrindulariak ezagutu dituen Banesto talde handian. Ikastea bertze helbururik ez dio paratzen bere buruari: «Profesional bat izaten saiatuko naiz, horrek erran nahi duen guziarekin: nire aldetik dudana guzia jarri, prestatu, zaindu eta taldeari ahalik eta gehiena eman. Lehendabiziko urte honetan ikasi nahi dut. Mundu berri bat da eta mila gauza daude ikasteko, gogo aunitzekin nago».



Beti Gazte eta Gure Txokoaren arteko derbia 1948an. Euriz leher egin arren, jendez gainezka -eta lohiez estalia- ageri zen Lesakako Kristo-Enea futbol zelaia.

Bortziritako futbol derbi nagusia lau urte beranduago jokatuko da

- Azaroaren 12an Matzadan jokatuko dute Gure Txokoa eta Beti Gaztek
- Bera eta Lesakako bi taldeek denboraldi hasiera ona egin dute

AITOR AROTZENA

1996ko martxoaren 24an jokatu zen Gure Txokoa eta Beti Gazteko futbol talde nagusien arteko azken derbia. Matzadan 1-4 irabazi zuten lesakarrak ligako azken aitazineko partiduan eta hurrengo norgehiagoka irabazita Preferentera itzultzea lortu zuten. Lau denboraldi egin ditu bertan Beti Gazte eta iaz Erregionaleko lehen mailara jaitsi zen. Gure Txokoakoak, berriz, bigarren mailara ere jaitsi ziren duela bi denboraldi. Iaz igo egin ziren eta nahiko lan izan zuten mailari eusteko. Aurten kontuak aldatu dira. Beratarrek liga hasera bikaina egin dute eta

laugarren jardunaldian liderrak ziren. Lesakarrak ere ongi hasi dira. Azaroaren 12an, lau urte terdi beranduago, Bortziritako betiko derbia ikusi ahal izanen da Berako Matzadan zelaian.

Gure Txokoa azken hogeituroko aldi txarri buelta ematen saiatuko da: 1990, hamar kadan sei partidu jokatutako elkarren artean eta lesakarrak bortz irabazi dituzte eta berzea berdindu. Papeletan begiratu, beratarren azken garaipena 1981. urtean izan zela ageri da, Kristo-Enean jokatutako partiduan. Denboraldi hartan, bigarren itzulian, Toki-Ona zelai estreinatua berriari galdu egin zuten

beratarrek eta geroztikan ez diote bizilagunei partidu ofizialik irabazi. Egia da, dena den, azken urteetan guttitan suertatu direla kategoria berean jokatzen.

«MUGA ALDEKO FUTBOL IKUSKIZUN GORENA»

Baina Bortziritako futbol derbia ez da azken hogeituroko kontua. 1940. hamarkadako *Campeonato del Bidasoa* eta *Copa Frontera* txapelketetan ikusmin ikaragarria pizten zuten beratarren eta lesakarren arteko norgehiagokek. 1950eko Diario Vasco egunkarian, muga aldeko futbol ikuskizun gorena zela uste zuen Bizkay kazetari lesakarrak: «*el sensacional "match"*

Gure Txokoa-Beti Gazte, cuyo acontecimiento que tendrá lugar el próximo domingo, constituye la máxima expectación futbolística de la frontera, cuyo escenario será el histórico campo de Aguerra».

50 urte beranduago, azaroaren 12an, Matzadan jokatuko dute bi taldeek eta ez da errea faboritua zein den erratea. Bi taldeek jokalarri veterano eta gazteen arteko nahasketa polita dute aurten. Entrenatzaileek ere ez dute beraien burua faboritotzat jotzen, baina Miguel Dagerre beratarrek eta Joxe Mari Erkizia lesakarrak helburu bakarra dute: «*Partidua irabazi behinpein».*

GURE TXOKOA

Jokalaria	Adina
Ander Altzuri	At. 23
David Moreau	At. 28
Angelito Arribar	D. 23
Imanol Oartzabal	D. 23
Gorka Ibarra	D. 26
Iñigo Altzuzuren	D. 20
Javier Tapia	D. 25
Mikel Altzuri	D. 19
Oskar Urkiola	D. 26
Javi Garcia	D. 20
Mikel Arotza	E. 20
Andoni Larrañaga	E. 24
Felipe Saraguet	E. 25
Josu Irazoki	E. 21
Jose Luis Tapia	E. 24
Pateku Artieda	E. 23
Asier Larrañaga	Au. 20
Angel Porbar	Au. 28
Iñaki Irazoki	Au. 20
Carlos Porbar	Au. 20
Iñigo Lasaga	Au. 19
Jose Sebastian	Au. 23
Gorka Felio	Au. 23
Eduardo Etxebeste	Au. 19
Entren: Miguel Dagerre	

BETI GAZTE

Jokalaria	Adina
Unai Almandoz	At. 24
Hartz Amola	At. 19
Xabi Txoperena	D. 23
Jabier Lamu	D. 33
Iñaki Portu	D. 26
Eneko Fernandez	D. 23
Aitor Arotza	D. 30
Aier Retegi	D. 21
Mikel Iñarte	D. 24
Borja Senosiain	E. 22
Imanol Almandoz	E. 20
Ibai Mixelena	E. 19
Felix Irazoki	E. 28
Juanen Saralegi	E. 28
Endika Mendegia	E. 28
Iñigo Telletxea	E. 20
Ismael Iribide	E. 23
Imanol Txoperena	Au. 19
Unai Etxepare	Au. 23
Unai Otazu	Au. 19
Koldo Ruiz	Au. 20
Iñigo Rodriguez	Au. 24
Entren: Jose Mari Erkizia	

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

AURTITZ

► **Azaroaren 10etik 13ra** San Martin bestak. Informazio gehiago 19. orrialdean.

ELIZONDO

► **Kirikoketa Eguna** Egitaraua 23. orrialdean.

LITERATURA

BERA

► **Azaroaren 3an** Castillo Suarezen liburu aurkezpena. Liburategian, 19,30etan.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 22a artio** Elisabet Mendia eta Elisa Muñozen erakusketak, arratsaldeko 6,30etatik 9etara Arizkunenea Kultur Etxean.

► **Chillida-leku** ikusteko ateraldia, abenduaren 2an. Prezioa: 2.600 pta. Izena emateko Kultur Etxean.

PAILAZOAK

LESAKA

► **Azaroaren 5ean** Lesakako pilotalekuan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren ikuskizuna, arratsaldeko 5etatik aitzinera.

UDAZKENEKO BIRA

ZUGARRAMURDI

► **Azaroaren 25ean** Iruñeko San Fermin korralak Zugarramurdiko elizan kantatuko du arratsaldeko 7,30etan.

URROTZ

► **Azaroaren 5ean** Lesakako Tantarumairu Dantza Taldearen emanaldia.

TELEBISTAKO TXOKOA



Feria sasoia da TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ere

Elizondokoak joan den ortziralean izan ziren eta arratsan horren berri eman genizuen albistegian. Azaroaren 1ean Arantzan ospatutako Baserritarren Egunean ere izan du gara, eta heldu den azaroaren 17an, berriz, Malerrekak hartuko du txanda eta Doneztebera hurbilduko gara saltzaile eta erosleak bezala. Azkenik, hilabete hondarrean Lesakan ospatuko da Bortzirietako feria, eta hor ere ez du hutsik egingen gure telebistak. Horrela bada, adi egon albistegiari ferietako gertakizunik aipagarrienak ikusi nahi badituzue. Gainera, feria sasoia den honetan, abeltzain eta nekazariei buruzko hainbat erreportai berexi eskainiko ditu ttipi-ttapa telebistak.

Bertzetik, jakinen duzuen bezala astearte iluntzetan albistegiaren ondotik laburmetriak ikusteko modua duzue oraindik ere. Bertizko Zinemaldian parte hartu zuten filme laburrak daude ikusgai arratseko 9,30ak aldera.

Abesbatzak maite dituztenek, berriz, derrigorrezko hitzordua dute gaur, azaroak 2. Izan ere, Tolosako abesbatzen lehiaketan parte hartetik heldu den Manilako abesbatza famatuak Beran abestu zuen atzo, eta gaur ikuskitzuna oso-osorik botako dugu TTIPI-TTAPA TELEBISTAN.

BASERRIA



◆ ZERRIKIA ◆

- **Zerrikumea** (20 kilokoak): 5.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 160-164 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 115-120 pta./kiloa, bizirik.



◆ BEHIKIA ◆

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra 555-570
1.koa 545-555
2.koa 495-505
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra 600-610
1.koa 575-595
2.koa 520-540
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten uruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: uruxak 25.000-29.000 eta idixkoak 31.000-36.000 Pta.
Mestizoak: uruxak 42.000-48.000 eta idixkoak 49.000-59.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gori ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Esteban, borrokaren ondarea»
Ardi Beltza
ARAKATZEN S.L.

«Ardi beltza» lorketa aldizkariak karrikaratu du Esteban Esteban Nieto euskal borrokariaren bizitza eta gizaerari buruzko liburua, baita CD bat eta hainbat argazki ere. Euskaraz eta erdarazko pasarteak tartekatzen dira liburuan. Idazleek aitortu dutenez, «ahaiak eta leialtasun handienaz eta ondo dokumentatuta, sendotasunez baino emozioz betetako une horiek guztiak» biltzea izan da euren helburua.

Hamabi urtez espelxoan egon zen Esteban Esteban Nieto, bizi baldintza gogorrenak sufritzen, tartean hiru gose greba eta heriotza eragin zituen eritasuna. 1999ko apirilaren 7an, guztiz gaixo zegoelako, libre utzi behar izan zuten. Handik denbora gutxira, urte bereko irailaren 25etik 26rako gauean hil zen ETako kidea. 122 liburu edo 3.200 pazetaren truke lortzen ahal dira liburu eta diska.

JAKIN BEHARREKOAK

Euroari buruzko galdemoduak

Zer neurri hartuko dira euroa sartu bitarteko trantsizioan kontsumitzailea defendatzeko?

Kontsumitzaileen defentsa Europako Kontseiluak onartu duen araudi bateri esker arabera bermatzen da:

- Kontratuen jarraipenaren printzipioa, euroaren sarrerak kontratuak aldatu edo mozteko aitzakia bezala erabili ez dadin.

- Eurotik moneta nazionalera eta alderantziz egindako aldaketetan borobiltzea justua izateko sortutako arau zehatzak daude. Diru aldaketa guztiak ondoko proportzioaren bidez egin behar dira: euro bat = 166,386 pezeta.

Nolakoak dira euroaren monetak?

Alde batetik Estatu bakoitzak sartu nahi dituen sinboloak egonen dira. Espainiako kasuan, 1, 2 eta 5 zentimoko monetek Santiagoko katedralaren irudia dute, 10, 20 eta 50 zentimokoek Cervantesena, eta 1 eta 2 eurotakoek Juan Carlos Iaren irudia.

Bertze aldean Europako



Euroa sartu bitarteko epean kontsumitzailea defenditzeko araudia onartu du Europako Kontseiluak.

2001eko irailaren 1etik aitzinera banku, kutxa eta komertzio handietara banatuko dira euro billete eta txanponak.

Batasuneko mapa ageri da, Europako ikurrinako izarekin.



Nola banatu behar dira euro moneta eta billeteak?

2001eko irailaren 1etik aitzinera, banku, kutxa eta komertzio handietara banatuko dira euro billete eta txanponak. Urte horretako abenduan, berriz, komertzio txikietan eta hostelerian ere banatuko dira billete eta txanpon berriak. Azkenik, Abenduko azken hamabortzaldian, publikoak orokorrean 2000 pezetako billeteak aldatzen ahalko dituzte 12,02 Euroko balioa izanzen duten 43 txanponen truke.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 3an**

Sutra (Zaragoza), 10,30etan Kasinon.

► **Azaroaren 10ean**

Gloria, Argentinako tangoa.

► **Azaroaren 5ean**

Anna Luna Brasil Band, Brasileatik, Folk Ametsetan zikloaren barranean. Iluntzeko Betan Arizkunenean.

► **Azaroaren 12an**

D'Astura, Asturiasetik, Folk Ametsetan zikloaren barranean. Iluntzeko Betan Arizkunenean.

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► **Azaroaren 5ean**

Auritzera joanen dira Baztango Mendigoizaleak.

► **Azaroaren 12an**

berri, Arizkun-Burga ibilaldia egingen dute.

ERAKUSKETAK

BORTZIRIAK

► **Argazkilari afizionatuen erakusketa**

antolatzen du Berako Kultur Batzordeak. Lanak azaroaren 10a baino lehen utzi behar dira Kultur Etxean.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 7hora. deltu behar da

► **Urriaren 30etik**

azaroaren 5era

Igantzi, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Azaroaren 6tik**

12ra Lesaka, Ituren, Elizondo (Ituralde), Leitza eta Goizueta.

► **Azaroaren 13tik**

19ra Bera, Nاربarte, Iurita eta Goizueta.

DISKAK



«M. Artieda»

MIGUEL ARTIEDA

ELKAR

Baju elektrikoa da Mikel Artiedaren diskoko izar nagusia, nahiz eta bertan biltzen diren 17 abestiek elkarren antz handirik ez izan. Hau da bakarlanean ateratzen duen lehen diskoa, orain arte bertze jendeekin batera proiektu desberdinetan sartua ibili baita, hara nola, "Tapia eta Leturia Band" eta "Zaldibobo".

Hasi, 1980. urtean hasi zen bajua jotzen, ordurarte akorde-

oia baitzen bere instrumentua. Laster Laket sortu zuen Fernan Irazoki, Irantzu Silva eta bertze lagun beratar batzuekin. Orduz geroztik bajuarekin batera bide luzea egin du, eta bere ezinegonak, sentimentuak, pentsamoduak bajuarekin adierazten ikasi du denbora honetan. Disko hau da, hortaz, urte guzti hauetan sorkuntzarako izan duen astiak eman duen ondorioa.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Ebe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikulac, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Bertzelakoak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ADOS

- BERA. Bi pisu eta bi apartamentu salgai. Bizitzen jartzeko prest daude.

☎ 948 451 341
☎ 948 637 1156

LEGASA. Pisu salgai. 3 logela, sukaldia, bainugela eta egongela. ☎ 678 588 929.

BERA. Legia karrikan pisua salgai. 92 m², ganbara, 2 bainu, 3 gela, sukaldia, egongela. Mobleztatua. ☎ 948 630 632.

LEITZA. Pisu salgai, kalerakzioarekin. Sukaldia eta jangela montatuak. 14.000.000 pta. ☎ 948 510 169.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 341
☎ 948 637 1156

ELIZONDO. Paularena 28an 90 m²ko pisua salgai. Argitsua. ☎ 948 580 608 (gaueko 8etatik 10etara).

LESAKA. Bittiria 90 m²ko pisua salgai. 2. solairua. ☎ 948 637 931 (goizetan).

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

Pisu ttiki bat hartuko nuke errentan. ☎ 948 631 188.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Kasul Euskalduna bazara eta Iruñean pisu bila bazabiltza edo zure pisan lekurik baduzu, zatorz Karrikirra, Iruñeko euskaldunen elkartera, edo del egiguzu. ☎ 948 222 589. Helbidea: Xabier karrika, 2. bis, Iruñea.

Beran pisu bat konpartitzeko pertsona bat behar du. ☎ 948 631 222 (Inma).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Bittiria karrikan lur-azpiko garaje itxia salgai. ☎ 948 637 463 (gaueetan).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN



Lezaun-Urba

Hostal hau errentan eman nahi dugu. Jantokia, sukaldia, taberna, logelak... Berehala lanean hasteko behar den guzia du. Interesatuek del dezatela telefono honetara:

☎ 655 700 132

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

GAZTELU-DONAMARIA. Lursail eraikigarria salgai. ☎ 948 211 441 (gauez).

LANA

301 ESKAINTZAK

Zerbitzaria behar da jate-txe batean lan egiteko, esperientziarekin. ☎ 948 631 106.

Bortzrietako enpresa batek mutil gazte bat behar du igeltsero laguntzaile aritzeko. ☎ 619 829 289.

La Cañak Beran ireki nahi duen bulego berrirako 29 urtez behetiko unibertsitariak behar dira. Deitu urriaren 26a baino lehen. ☎ 629 759 518 (Felipe).

Pertsona bat behar dugu Berako ostatu batean barran lan egiteko. ☎ 948 631 271.

Iruñean neska bat behar da interna gisa lan egiteko. ☎ 948 152 266.

Donostian neska bat behar da interna moduan lan egiteko. ☎ 943 214 004.

Bi neska behar dira jate-txe batean zerbitzari gisa egun erdiz aritzeko. ☎ 943 623 130.

☎ 948 13 11 36
LODITASUNA?
96 pertsona behar ditugu pisu kontrolaren programa berri bat frogatzeko. Belarren bidez egiten da.

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Opel Kadett 1.6, NA-y, 90.000 km. ☎ 948 635 000 (Javier).

Bultaco 250 motoa salgai. Egoera onean, matrikultatua eta iat (itv) eguneratua. ☎ 948 627 539 (Bixente).

MOTORRA

502 TAILERRAK

GANIX Tailerrak

Iturizola, 9 • ☎ 948 533668 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



**BOAN
TAILERRA**
CITROEN Baniztralea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

MENDAUR MOTOR ☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Astra GS, Astra Sportif (7 Nivea),
C-15 D, Ibiza D, R-Expres D,
Panda 4x4, Kadett GS, Golf TD
SUZUKIAK ETA VIVAK ALKORAN

ANIMALIAK

601 OPARITZEKO

Bi zakurkume oparitzeko nituzke. ☎ 948 630 788.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Basurde ehiziko Grifon zakur emea salgai. ☎ 948 387 098.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Sakeleko telefonoa aurkitu da Berako ikastola parean. Alcatel. ☎ 948 631 121.

Igantzioko bestetan betaurrekoak galdu ditut. ☎ 948 630 897.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Lakuntza markako egurrezko sukaldea salgai. Termo elektrikoa. Egoera oso onean. ☎ 617 808 848.

Kalefakzioarako kaldera (egurrezkoa) salgai. Broca markakoa. ☎ 948 514 003 (denda orduetan).

Hergom markako sukalde kalefaktorea erosiko nuke. ☎ 619 365 297.

320 litroko esne hozteko tankea salgai. Japi markakoa. ☎ 948 610 654 (Bitoriano).

Bigarren eskuko sukalde ekonomikoa erosiko nuke. Ur bero eta kalefakzio-rik gabekoa. ☎ 948 630 421.

2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora



Mitsubishi Montero
2.8 Turbo Diesel Intercooler

125 cv, NA-BO, berriz matrikultatua, 95 urtekoa, 83.660 km. Xuria, 5 ate, haize egokitu bikoitza, leiho elektrikoak, 4 atzetan, ABS, ispiu elektrikoak, itxiera zentralizatua, aluminiozko lantak, alboko estiberak, eremolkearentzako lotura, iratsa, etab. Garantia.

Tel. 608 77 80 23
BERA

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:

Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilo igorri behar duzue. Galnerakoan ez dira TTIPI-TTAPA mugazkoan eta aldizkarian agertuko. Argazkia izuzteko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Xabier Erasun Elizondo donostiarra 2 urte bete ditu urriaren 24an. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



Xuban Larretxea Altzugarai leizuarra urriaren 28an bete ditu 3 urte. Zorionak familiaren partetik. Musu suntsu.



Ertitsua eta Xabier Iturria berastarrak 3 urte urriaren 28an eta urtas azaroaren 10ean beteiko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



Ander Rodriguez Korta berastarrak azaroaren 12an urteak beteiko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Nerea Zabaleta Lasarte leizuarra 9 urte bete ditu urriaren 18an. Zorionak eta musu handi bat Bera eta Inuaga familiaren partetik.



Maria Juliana Otxandorena oronostarrak urriaren 24an urteak beteiko ditu. Zorionak Bera familia partetik, Jose PF eta Anaia.



Bixen Teletxea Iguzkiagirre leizuarra azaroaren 1ean 3 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Olaia Olazar Mariezkurrena elgorriarrrak 1 urte beteiko ditu urriaren 23an. Zorionak jostoki. Olaia, Xabier, eta eta ama.



Sara Olazar Mariezkurrena elgorriarrrak 8 urte beteiko ditu azaroaren 1ean. Zorionak printzesa. Sara, Xabier, eta eta ama.



Julen berastarrak urriaren 31n 7 urte beteiko ditu. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



Coretti Ordoki Agirre berastarrak urte bete du urriaren 28an. Auniz urte, familia guztiaren partetik.



Aitziber Goienetxe Batllek 3 urte bete ditu urriaren 23ean. Zorionak eta musu handi bat, ama eta irratzaren partetik.



Irantzu Silva Zalvide berastarrak urteak bete ditu urriaren 24an. Inaxio (iki) eta jantzen partetik musu handi bat.



Ugaitz Elizalde Bereau leizuarra urriaren 27an 5 urte bete ditu. Zorionak familia eta lehengusa Ederren partetik.



Inaki Aranburu Mitxelena surtitarra 9 urte bete ditu urriaren 17an. Zorionak bere familiaren partetik.



Oihana Leiza Altzuart urriaren 31n 2 urte beteiko ditu. Zorionak eta musu handi bat ama eta amaren partetik.



Sara Almandoz Lakanbio arantzarra 3 urte beteiko ditu azaroaren 7an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Ainhoa Gartziaena Naal-de donostiarra azaroaren 10ean 4 urte beteiko ditu. Zorionak rina, familia guztiaren partetik.



Asier Sanjurjo Gil leizuarra azaroaren 9an 3 urte beteiko ditu. Zorionak eta musu handi bat familiaren partetik.



Leizola **Javier** eta Ugarteko **Coretti** urriaren 28an eskandit dira. Zorionak Leizola lagun partetik.



Jaime Osinaga donostiarra 10 urte beteiko ditu azaroaren 3ean. Zorionak eta musu handi bat ama, atxa eta jonen partetik.



Aitor Bengoetxea Oñartxea leizuarra 11 urte beteiko ditu azaroaren 12an. Zorionak familiaren partetik. Musu handi bat jakeen partetik.



Xabat Etxegia Apeztegui urriaren 1en urte bete du. Zorionak eta musu handi bat Aizporekaren eta familiaren partetik.

Norbait zoriontzeko, bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAko helbidera:
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
31780 BERA

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

Eri edo adintuei uzteko gurgildun aulkiak, ohatze artikulatuak, koltxoiak, guak, etabar behar ditu Bortzirietako Oinarizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Azken urte hauetan aunitz izan dira material hori eskatu eta erabili dutenak. Horregatik, zure etxeetan horrelako materiala baldin baduzue eta ez baduzue erabiltzen, mesedez deitu eta guk bilduko dugu, gero behar duten eriek erabil ahal izateko. ☎ 948 635 036.

HARREMANAK


801 AGURRAK

Zorionak Goizuetako Ixabel eta bere seme Xabierren, azaroaren 19an urteak betetzen dituztelako. Xabierrek lau eta anaiak gehixeago. Juan Mari eta Ibai.

Modeloak behar dira

Abenduaren 3an egingen den moda desfilerako, modeloak behar dira. Taila edo adina berdina da, desfilatzeko gogoia eskatzen da bakarrik.

☎ 617 350 176



EHIZARI BURUZKO VIII. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

AZAROAREN 3tik 30era

Baztan, Bertizarana, Malerreka zizirietako 16 jatetxek eskainirik surde, orein, erbi edo oilgorrez osatutako menuak aurkituko dituzu, betiko moduan edo era berrietan eginak.

2.400 eta 4.100 Pta. arteko menuak (ardoa eta BEZ kanpo) Dena den, jatetxe guztiek beren ohiko karta eta zerbitzuak eskainiko dituzte.

LAGUNTZAILEAK

• Nafarroako Gobernua
Turismo Departamentua



Noticias

JATETXEAK

ALMANDOZ

Beola. 948 58 50 02

ARANTZA

Aterpe. 948 63 41 79

Burlada. 948 63 40 27

BERA

Matxiarena. 948 63 00 33

Zalain. 948 63 11 06

DONAMARIA

Donamariko Benta. 948 45 07 08

DONEZTEBE

Amezia Erretegia. 948 45 19 02

ELGORRIAGA

Hilarión. 948 45 00 03

ELIZONDO

Baztan. 948 58 11 13

Eskisaroí. 948 58 00 13

IGANTZI

Igantzi. 948 63 75 02

La Villa. 948 63 72 90

IRURITA

Taberna del Fotógrafo. 948 45 20 87

Olari. 948 45 22 54

LESACA

Kasino. 948 63 71 52

Koxkonta. 948 62 75 19

ANTOLATZAILEA



AHOZKO TRADIZIOA JASOTZEKO

BEKA DEIALDIA

- Bortzirietako euskararen ahozko tradizioari buruzko ikerlana egitea eta hura herritarren artean zabaltzeko urratsak proposatzea da beka deialdiaren helburua.
- Oinarriak Bortzirietako Euskara Mankomunidadean daude. Informazio gehiagorako deitu 948 634 125 telefonora.
- Eskakerak 2000ko azaroaren 15eko 15:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira helbide honetan:



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA

Arantzako Herriko Etxea

31790 ARANTZA

Arantzan, 2000ko urrian
Lehendakariak



Sarrera BERRatik da
Alkaiagako Industrialdian
Sustrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnua. 948 630 537
Fax. 948 631 443



Logela
ofertan
14.077 pla
hilabelean



1. urtemugako oferta
%40ko deskontuak
koltxoietan

Lanurbat arratsaldetan irekia

